



Bizikidetza Plana

Eskola Kontseilua 2023ko maiatza.

**Larramendi
Ikastola**
Alkar ekin, mundurako hezi

TEL: 94 674 90 80
idazkaritza@larramendi-ikastola.net
Madalen Bidea, 20. MUNGIA
www.larramendi-ikastola.eus

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
1.IKASTOLA ETA INGURUNEA.....	4
2.BIZIKIDETZA EGOERAREN DIAGNOSTIKOA.....	7
2.1 Diagnostikoaren helburuak:.....	7
2.2 Metodologia:.....	7
2.3 Ondorio nagusiak. Gatazka ohikoen analisia.....	8
3.BIZIKIDETZA PLANAREN HELBURUAK.....	12
3.1 Helburu orokorrak.	12
3.2 Helburu espezifikoak.	12
3.3 Planak sustatu nahi dituen jarrerak.	14
4. HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK.....	15
4.1. Bizikidetza Behatokia.....	15
4.2 Etapako bizikidetza batzordea (LH eta DBH-BATXI).....	16
4.3 Gelako bizikidetza batzordea	17
5.ELKARBIZITZA KUDEATZEKO PREBENTZIO PROGRAMAK.....	18
5.1 KiVa PROGRAMA LH eta DBHn	18
5.2 ADIMEN EMOZIONALA.....	19
6.ELKARBIZITZA HOBETZEKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK.....	21
6.1. ELKARRIZKETA HEZIGARRIA	21
6.2. KONTRATUA.....	26
6.3 BELARRI-AULKI ETA AHO-AULKIAREN TXOKOA.....	28
6.4. GELA BATZARRA	31
6.5 BITARTEKARITZA PROGRAMA.....	34
6.6 IKASLE LAGUNTZAILEAREN PROGRAMA.....	34
7.DIZIPLINA IKUSPEGI HEZIGARRIA	36
7.1 Ondorio hezigarrien oinarritzko ezaugarriak	36
7.2 Ondorio hezigarrietarako zenbait proposamen.....	37
8. ARAU OROKORRAK.....	44
9. HAUR HEZKUNTZA	46
10.LEHEN HEZKUNTZA	48
11.DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA BATXILERGOA.....	51
12.JANTOKIA	52
13. JOKABIDE DESEGOKIEN TRATAERA	56
15.BIBLIOGRAFIA.....	58

Plan honen helburua Larramendi Ikastolako Bizikidetza markoa eta arautegia osatzea eta zehaztea da, eguneroko gure jardunean topatzen ditugun arazo eta erronkei aurre egiteko tresna bezala.

Helburua guraso, ikasle, irakasle eta orohar, ikastolako komunitateko kideen arteko bizikidetza hobetzea da helburua, izan ere, ikastolako hezkuntza jarduera modu eraginkorrean gazuzateko oinarri oinarrizkoa da.

Bizikidetza planak, ikastolako bizikidetzarako marko orokorra, helburu komunak eta gutxieneko arauak zehaztea du helburu, gatazka egoerak hautemateko eta prebenitzeko estrategiak eta tresnak proposatuz eta gatazkak konpontzeko prozedurak ezartzen ditu; ikastolaren Hezkuntza proiektuko helburu orokorretan oinarrituz eta bizikidetza sendoagoa bultzatzeko xedez.

Bizikidetza plana ahalik eta modu eraginkorrean ezartzea eta modu progresiboan garatzea da helburua, horregatik, plan hau ikasturtero berrikusi beharko dugu hobetzeko asmoarekin, eta beti ere Hezkuntza Sailburuak eta ikastolak berak dituen beste plan eta dokumentuei kontra egin gabe.

EAEko Derrigorrezko Hezkuntzaren Curriculumak adierazten du Ikastetxeetako elkarbizitza egokia izan dadin bake-kultura sortzea dela ikastetxearen zereginetako bat. Bake-kultura hori sortzeko, errespetuan, elkarrizketan eta emozioen erregulazioan oinarritzen diren jardunbideak programatu behar dira.

Larramendi Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan agertzen den moduan ikastolaren egitekoaren erdigunea ikasleak dira. Ikasle bakoitzaren interesguneak eta beharrak kontuan hartuz, indarguneak sustatu eta, horietan oinarrituz, ahuleziak gainditzen lagundu nahi dugu. Gure azken helburua seme-alabak helduarorako eta bizitza osorako ondo prestatzea da, beraien bizitza zentzuz eta arduraz gidatzeko, eta bizitza ona eramateko eta ondo bizitzeko gai izan daitezen.

1. IKASTOLA ETA INGURUNEA

0 eta 18 urte arteko hezkuntza eskaintzen dugu. Ikastolak batez ere Mungiako zein Mungialdeko, Uribe-kostako eta Txorierriko herrietako ikasleak erakartzen ditu.

Ikastolaren titularra Larramendi Ikastola Irakaskuntzako Kooperatiba Elkartea da.

Ikastolako hezkuntza eskaintza zabala da: gizarte osoari zuzendua eta zerbitzu publikoen aldekoa. Izan ere, diskriminazioa saihestu nahi dugu, bai arrazoi ekonomikoengatik, bai bestelako arrazoiengatik. Hori dela eta, kooperatibak ez du irabazi asmorik. Finantzaketaren iturri nagusia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin duen hezkuntza-itunaren bidez jasotzen du eta gurasoen ekarpenekin osatzen du.

Ikastola gara:


- Herri inizatibaz, herritik eta herriarentzat, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz sortutako ekimena.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometiturik, beste hizkuntza eta kulturetara irekia dagoen ikastetxe euskalduna.
- Familien ekimenez sortutakoa, seme-alaben heziketaren ardura irakasleekin eta gizartearekin batera bideratzeko asmoz.
- Etengabeko hezkuntza berrikuntzan oinarritutako hezkuntza proiektu berezkoa eta aurreratua.
- Euskal Herriko beste ikastolekin batera Ikastolen Elkarteko kide gara eta Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba osatzen dugu.

Hezkuntza kooperatiba gara:

- Herri ekimenean oinarrituz, ikasleen gurasoak (ordezkariak, tutoreak) eta laguntzaileek sortutako hezkuntza elkartea gara eta gure egitekoa, gure artean elkar lagunduz eta auzo lanean, seme-alaben gaitasunak garatzea eta bizitzarako ondo prestatzea da.
- Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen forma juridikoa dugu.
- Irabazi asmorik gabeko erakundea gara.
- Ikasleek, gurasoek, irakasleek eta laguntzaileek osatutako hezkuntza komunitatea gara.
- Hezkuntza komunitateko eragile guztien partaidetza demokratikoa eta lankidetzat sustatzen dugu.

Larramendi Ikastolaren izaeran oinarrituz eta bere egitekoa betetzeko ondorengo balioak lehenesten ditugu:

- **Euskalduntasuna:** Euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometitutako taldea gara. Euskara da hezkuntza prozesuko eta, oro har, ikastolako bizitzan ahoz eta idatziz erabiltzeko lehen hizkuntza. Era berean, berriazko euskal kulturaren transmisioa eta



atxikimendua irakaskuntzaren, eta ikastolako eta ikastolatik kanpoko ekintzen bidez eragingo dira.

- **Gizarte ardura:** Gizartearen eraldaketa eta garapenean paper garrantzitsua betetzen dugu. Mungia, inguruko herri eta ingurumenarekiko konpromiso sendoa.
- **Inklusibotasuna:** Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartzea, pertsona guztiei irekita egotea, eta ikasleen gaitasunak ahal bezain beste garatzea dira gure helburuak.
- **Aniztasuna:** Aniztasunera irekiak gaude, ezberdintasunaren aurrean tolerantziaz eta elkar ulertzeaz haratago, aldebikotasunaren eraginez elkar aberastea dakarrena.
- **Aukera ez konfesionala:** Ikuskera espiritualaren eta erlijiosoen balioa onartzen da eta kide guztien sinesmen erlijiosoak, oinarrizko eskubideak urratzen ez dituzten neurrian, errespetatzen dira, baina inolako erlijiora atxekitu gabe.
- **Hezkidetzak:** Harreman parekideak sustatzea eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan hezten dugu.
- **Erlazioak:** Eragile ezberdinen arteko ulermena eta adostasuna erraztu eta konfiantzan oinarrituz, elkar laguntza sustatzen duten erlazioak sustatu nahi ditugu.
- **Parte-hartzea:** Proiektu partekatua osatzen dugu. Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien ekarpenak bideratuz.
- **Elkarlana:** Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien artean osagarritasuna bilatuz indarrak batzen ditugu. Talde lana eta esfortzu partekatuak sustatzen ditugu.
- **Gardentasuna:** Informazio eta komunikazioan, arazoaren aurrean eta kudeaketan.
- **Profesionaltasuna:** Egiten duguna era egokian eta eraginkortasunez egiten dugu. Etengabeko prestakuntza eta zerbitzurako jarrera.
- **Berrikuntza:** Etorkizunari aurre hartuz, bide berriak zabalduz, modu irekian, malgutasunez, guztion artean eraikitzen ditugu.
- **Erantzukizuna:** Partekatua, bakoitzak bere esparruan. Adosten ditugun helburuen eta egiten ditugun ekintzen arteko koherentzia. Barnera eta kanpora begirako ardura eta sinesgarritasuna.

Ikastolako Hezkuntza komunitateak ikaslea hartzen du balio garrantzitsuen, helburu izanik pertsonaren garapen integrala maila guztietan: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, morala, afektiboa nahiz emozionala eta estetikoa. Ezarritakoa bermatzeko ekimen integrala behar da oinarrizko hezkuntzan, bizikidetzak eta hezkidetzak elementu oinarrizkoak bihurtuz.

Hori dela eta **Elkarrekin bizitzen ikasi** eta **Norbera izaten ikasi** konpetentziak gure hezkuntza proiektuan klabeak dira.

Norbera izaten ikasi:

- Sentitzen, pentsatzen, desiratzen, esaten eta egiten dituenari buruz distantzia hartzea eta hausnartzea (metakognizioa).
- Norberaren irudia, identitatea eta jokamoldeak (identitate sexuala barne) eraikitzeke eta modu erosoan adierazteko gaitasuna izatea.
- Bere ezaugarri pertsonalak (fisikoak, psikologikoak, sozialak, akademikoak...) ondo ezagutzea eta irudi erreala izatea (autokontzeptua).
- Bere buruaz balorazio baikorra egitea eta bere buruan konfiantza eta huts egiteari ez beldurrik izatea (autoestimua).
- Bere kabuz inizatibak eta erabakiak hartzea, gauzatzea eta ondorioetaz jabetzea (autonomia eta burujabetasuna).
- Hainbat identitate aukeren artean, euskaldun izatearen identitate pertsonala modu inklusiboan eraikitzea.
- Euskara berezko erabilera eta euskal kulturarekiko lotura zuzena duen pertsona izatea. Era berean, beste kultura batzuen ezagupena eta harremana duena.

Elkarrekin bizitzen ikasi:

- Bere eskubide eta interes pertsonalak sendo eta gogoz defendatzea, eta sentitzen, pentsatzen eta egin nahi duena askatasunez eta besteekiko errespetuz adieraztea (asertibitatea).
- Solaskidearen lekuan jartzea, arretaz entzutea, besteen pozak eta nahigabeak bereganatzeko sentibera izatea, eta laguntzeko prest egotea (enpatia).
- Gatazken aurrean besteen arrazoiak entzutea, bereak errespetuz adieraztea, eta elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
- Taldeko jardueretan ekimenez eta arduraz jokatzeko, giro ona suspertzea, guztiekin lan egiteko eta laguntzeko prest egotea.
- Pertsonen arteko aniztasunaz baliatzea eta aldebikotasunaren eraginez elkar aberastea.
- Pertsonen duintasuna errespetatzea eta harreman parekideak sustatzea edozein egoeratan eta edozein identitateko pertsonekin (edozein izanda haien genero edo sexu identitatea, arraza, itsura, hizkuntza, jatorria, iritzi politikoa, erlijioa, egoera ekonomikoa, edo beste edozein ezaugarri).
- Mota guztietako bazterketa edo indarkeriaren aurrean, izan fisiko edo psikologikoa, erantzukizuna hartzea eta aurre egitea.
- Besteen bizitza pribatua eta intimitatea errespetatzea.
- Bere ondasunak eta besteenak errespetatzea eta zaintzea.
- Konbentzio sozialen eraginez adostutako arauak (ordutegia, garbitasuna, kortesia, jateko eta edateko ohiturak, jolas-arauak...) betetzea.
- Bere ingurune hurbileko kutsadura sahiestea, garbitasuna mantentzea, materialak eta energia ez xahutzea eta landareak eta animaliak zaintzea.

2. BIZIKIDETZA EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2019ko ekainean GEUZek, Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitateko Zentroak bideratutako ikasleen bizikidetzaren inguruko diagnostikoaren helburuak, metodologia eta emaitza orokorrak jasotzen ditugu segidan.

2.1 Diagnostikoaren helburuak:

Helburu orokorra: Ikasleen bizikidetzari buruzko diagnostiko parte-hartzailea egitea bizikidetzaren plana definitzen laguntzeko.

Helburu zehatzak:

- Ikastetxeko ikasleek eskola-komunitateko kolektiboekin (ikasleak, irakasleak, irakaskuntzakoak ez diren langileak, zuzendaritza-taldea, familiak ...) dituzten **bizikidetzaren arazoak edo/eta gatazkak** identifikatzea.
- Identifikatutako arazoen edo/eta gatazken funtsezko **kausak edo faktoreak** aztertzea.
- Identifikatutako arazo edo/eta gatazka bakoitzerako **proposamenak edo/eta hobekuntza-ildoak** sortzea.
- **Irakasleen, ikasleen eta ikastetxeko familien ikuspegitik** aurretiko berariazko helburuetan zehaztutako diagnostikoa garatzea.

2.2 Metodologia:

Informazioa jasotzeko bi tresna mota erabili ziren: galdetegiak eta foko taldeak. Irakasle eta familientzako galdetegia digitalki bideratu zen eta ikasleek galdetegia bete zuten foko taldeetan bertan.

Foko taldeetan 32 ikasleek parte hartu zuten 6 saiotan. Hiru talde sortu ziren:

-Batxilergo eta DBH 4ko ikasleak. 11 ikasle. (geletako ordezkariak)

-DBH 1., 2. Eta 3. Mailako ikasleak. 9 ikaslea. (geletako ordezkariak)

-Lehen Hezkuntzako 4., 5. Eta 6. Mailako ikasleak. 12 ikasle (ikasleek aukeratutako ordezkariak)

Ikasleen fokus taldeak bideratu baino lehen, geletako ordezkarien bitartez eta tutoreek bideratutako dinamiken bitartez gela guztietan ikasleen iritzia jaso ziren bizikidetzaren egoeraren inguruan.

Foko taldeetan landutako gaiak:

-Bizikidetzaren balorazio orokorra eta bere justifikazioa.

-Bizikidetzaren arazoko nagusien definizioa.

-Identifikatutako bizikidetza-arazo nagusiak kudeatzeko edo hobetzeko jardueraproposamenak.

Galdetegiaren helburu nagusia segidan agertzen diren elementuen inguruko informazioa jasotzea izan zen:

- Ikasleen arteko erlazioak.
- Ikasleen inklusioa eta bazterketa taldeetan.
- Materialen eta instalakuntzen zaintza.
- Gela barruko egoera disruptiboak.
- Irakasleen erlazioak ikasleekin eta gela barruko giroa.
- Bizikidetza arauen eta ondorioen ezagutza eta kudeaketa.
- Bizikidetza arazoaren kudeaketa eta gatazken ebazpenerako estrategiak.

Galdetegiaren erantzunak: 15 irakasleek erantzun zituzten galdetegiak (93 irakasle guztira) 199 familiek eta ordezkaturako 32 ikasleek.

2.3 Ondorio nagusiak. Gatazka ohikoaren analisia

Sortzen diren gatazka nagusiak honela sailkatu ahal ditugu galdetutako taldearen pertzepzioen arabera, hau da ikasleek, irakasleek eta familiek emandako erantzunen arabera:

1. IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

Ikasleak	Irakasleak	Familiak
-Irainak eta errespetu faltak. -Burlak, ezizenak, barre egitea (pertsonalizatuago). -Aurrez aurreko taldeak.	-Irainak eta errespetu faltak. -Burlak, ezizenak, barre egitea -Eraso fisikoak.	-Irainak eta errespetu faltak. -Burlak, ezizenak, barre egitea -Eraso fisikoak.

2. IKASLEEN INKLUSIOA ETA BAZTERKETA TALDEETAN.

Ikasleak	Irakasleak	Familiak
-Gelakideen artean lagun onik gabe. -Baztertua. -Bullying.	-Baztertua. -Gelakideen artean lagun onik gabe.	-Bullying.

3. MATERIALEN ETA INSTALAKUNTZEN ZAINZA.

Ikasleak	Irakasleak
-Paperak eta zakarra. -Pintadak.	-Paperak eta zakarra. -Pintadak.

4. GELA BARRUKO EGOERA DISRUPTIBOAK.

Ikasleak	Irakasleak
-Eten eta molestatu. -Aginduak ez bete. -Irakaslearekiko errespetu faltak. -Berandu iritsi.	-Aginduak ez bete. -Baimenik gabe lekutik jaikitzea. -Eten eta molestatu. -Berandu iritsi.

5. IRAKASLEEN ERLAZIOAK IKASLEEKIN ETA GELA BARRUKO GIROA.

Ikasleak	Irakasleak	Familiak
-Oihu egin. -Batzuei gaizki erantzun. -Mehatxuak. -Irainak.	-Oihu egin. -Mehatxuak. -Batzuei gaizki erantzun. -Irainak.	-Oihu egin. -Batzuei gaizki erantzun.

6. BIZIKIDETZA ARAUEN ETA ONDORIOEN EZAGUTZA ETA KUDEAKETA.

Ikasleak	Irakasleak	Familiak
-Irakasleen arteko desberdintasunak. -Tutoretzan adostutakoak. -Entzun gabe inposatuak.	-Irakasleen arteko desberdintasunak. -Tutoretzan adostutakoak. -Entzun gabe inposatuak.	-Irakasleen arteko desberdintasunak. -Entzun gabe inposatuak.

7. BIZIKIDETZA ARAZOEN KUDEAKETA ETA GATAZKEN EBAZPENERAKO ESTRATEGIAK.

Ikasleak	Irakasleak	Familiak
-Zigorrak. -Tutoretzan landu. -Sermoiak. -Familiarekin harremana.	-Sermoiak. -Aholkuak. -Familiarekin harremana. -Elkarrizketa.	-Elkarrizketa. -Zigorrak. -Aholkuak. -Sermoiak.

BIZIKIDETZAREN BALORAZIO OROKORRA

Bizikidetzaren inguruko ikasleen pertzepzioa ezagutzeko, "Ikasleen arteko bizikidetzaren onak" baieztapenari buruzko balorazioa egiteko eskatu zitaien ikasleei.

Ikasleen hiru laurden baino gehiagok, "ez nago ados" edo "ez nago bat ere ados" erantzun zuen.

Etapen arteko desberdintasunak ikusten dira, zenbat eta nagusiagoak izan ikasleak bizikidetzaren kalitateari buruz duten pertzepzioa gutxitu egin da, eta bizikidetzaren kalitateari buruzko iritziz negatiboagoa dute.

BIZIKIDETZA ARAZO NAGUSIEN LABURPENA

	1. ARAZOA	2. ARAZOA	3. ARAZOA	4. ARAZOA
LH IKASLEAK	Portaera matxistak	Ciberbullying	Bullying	
DBH 1-2-3 IKASLEAK	Bullying	Diskriminazioa	Gabezietaz barre egitea	Portaera matxistak
DBH 4 ETA BATXI IKASLEAK	Portaera matxistak	Zigor ez-eraginkorrak	Errespetu faltak (Ikasleen artean/ irakasle-ikasle)	Faboritismoa
IRAKASLEAK	Ikasleen arteko errespetu faltak	Ikasle eta irakasleen arteko errespetu faltak	Enpatia eta entzute falta	Irakasleen inplikazio falta
FAMILIAK	Errespetu faltak	Ikastola barruko arazoak	Bullying eta bazterketa	

ARAUEN ETA ONDORIOEN EZAGUTZA

Arauen eta haien ondorio edo zehapenen ezagutzari eta kudeaketari buruzko atalean nabarmentzen da ikasle eta irakasle gehienek uste dutela argi eta garbi azaltzen direla eta laguntzak ematen direla zehapenak ulertzeko. Oro har, kolektibo guztiek uste dute eskatzen dela horiek betetzea, eta ez betetzearen ondorioak eta zigorrak aplikatzen direla.

3. BIZIKIDETZA PLANAREN HELBURUAK

3.1 Helburu orokorrak.

Bizikidetza plan honen **xedea**, hezkuntza proposamenen bidez, **ikastolak oinarrizko eskubideak, askatasuna eta bizikidetzaren printzipio nagusiak garatzeko tresna eraginkorra izatea** da, partaide guztion eta bereziki ikaskideen arteko harremanak hobetzeko.

-Bizikidetza planaren helburua **elkarbizitza hobetzeko ekimenak sustatu eta garatzea** da.

-Hezkuntza **komunitatea osatzen dugun kide guztion arteko harremanak modu egokian bideratzea** lortu nahi du, denon partaideta sustatuz.

-Sor daitezkeen **gatazkak** hezkuntza irizpideekin eta **modu baketsuan konpontzeko bideak** ezarri nahi ditu bitartekaritzaren bitartez.

-Errespetuan oinarritutako beharrezkoak diren arauak eta hezkuntza komunitateko kide guztion eskubide eta betebeharrak ezagutzera emateko **ekimen prebentiboei lehenetasuna eman** nahi dio, tresna desberdinak erabiliz.

-Bizikidetza plan honen **ezarpenean eta jarraipenean** hezkuntza **komunitateko kide guztiak inplikatu** behar dira.

3.2 Helburu espezifikoak.

- A) Elkarbizitza giroarekin loturiko helburuak:
- B) Inplikazioarekin eta partaidetzarekin loturiko helburuak.
- C) Hezkidetzarekin loturiko helburuak.
- D) Inklusibitatearekin loturiko helburuak.
- E) Curriculumarekin loturiko helburuak.

DIMENTSIOA	HELBURU ESPEZIFIKOAK
ELKARBIZITZA GIROA	Adimen emozionalaren lanketa indartzea.
	Elkarrekin bizitzen ikasi konpetentzian asertibitateari garrantzia eman.
	Familiekin komunikazio eraginkorra bideratu.
	Jokabide desegokien ondorioak ikuspegi hezigarritik bideratzeko egiturak sortu eta prozesua sistematizatu barne erregulazioan oinarritutako elkarbizitza bideratzeko.
	Tutoretza plana berriztu bizikidetza indartzeko eta prebentzioa bermatzeko.
	Zarata jeisteko proposamen zehatzak egin giro lasai batean egoteko.
	Barne araudiaren komunikazioa ikasturte hasieran eta elkarren arteko konpromiso moduan hartu.
INPLIKAZIOA ETA PARTAIDETZA	Ikasleen ahalduntzea bizikidetzako kudeaketan.
	Ikasleen bitartekaritza bideratzeko programak txertatzea.
	Arautegi zehaztu bat sortzea, jokabide desegokien kudeaketarako prozedura zehatzarekin eta kudeaketarako egiturak sortuz.
	Diziplina Hezigarria eta zigorraren inguruko prestakuntza irakasle, ikasle eta familia.
HEZKIDETZA	Emakumeen eta gizonen berdintasuna sartzea hezkuntza proiektuan eta programazio didaktikoetan.
	Irakasle eta ikasleentzako prestakuntza egitea hezkidetzan eta genero-berdintasuneko hezkuntza bultzatzeko estrategietan.
	Sexistak ez diren eskola-materialak hautatzea.
	Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo jolas eta jostailu neutroak, kooperatiboak eta partekatatuak sustatzea.
INKLUSIBITATEA	Trebetasun sozialen lanketa.
	Normalizazioaren aldeko integrazio ereduak aztertu.
	Ikaskuntza kooperatiboan prestakuntza jaso eta ohiko praktikan integratu integrazioa.
CURRICULUMA	Modu sistematikoan Norbera izaten ikasi eta elkarrekin bizitzen ikasi konpetentzia garatzeko eta ebaluatzeko plana egin.
	Ebaluazioaren ikuspegi hezigarria integratu.



3.3 Planak sustatu nahi dituen jarrerak.

- Bizikidetzaren guztioan ardura da.
- Pertsona guztien duintasuna eta berdintasuna aitortzea eta errespetatzea.
- Guztiok eskubideen eta betebeharren jabe garela ikustaraztea.
- Pertsonen eta taldeen arteko gatazka izan badirela aitortzea eta, horiek konpontzeko, elkarriketaren bidea indartzea.
- Gogatzeko ideologikora bideratutako hitzezko edo hitzik gabeko jokabideen aurrean jarrera kritikoa izatea, bai eta diskriminazioa eragiketen duten edukien eta formen aurrean ere.
- Nork bere burua kontrolatzeko, baloratzeko eta hobetzeko moduak lantzea.

4. HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

4.1. Bizikidetzaren Behatokia

Bizikidetzaren behatokia ikastolako bizikidetzaren kudeatzeko sortutako organoa da. Bi helburu nagusi ditu: harreman positiboak sustatzea eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea.

Osaketa

-Eskola kontseiluko kideak.

Beharrezkoa denean:

-Eskolaz kanpoko jardueren koordinatzailea.

-Jantokiko arduraduna.

Funtzioak

-Bizikidetzaren Plana egin, osatu eta abiarazi. Ondoren, jarraipena eta ebaluazioa egin.

-Estamentu guztien partaidetza aktiboa bermatzea, bereziki ikasleena.

-Pertinentzia sentimendua sustatzea estamentu guztiengan.

-Aukera eta tratu berdintasuna zaintzea prozesu eta harreman arlo guztietan.

-Ikastolari harreman positiboak sustatzen laguntzeko jarduerak proposatzea: topaketak, jaialdiak, desioak eta sentimenduak adierazteko ekintzak, antzerki-taldeak, gorputz adierazpenerako tailerrak, erlaxazioa, eztabaidak, gatazkak konpontzeko gaitasunak eta komunikazio-ahalmenak lantzea.

-Guztion artean elkar zaintzeko kultura garatzen laguntzea, norberaren burua eta gainerakoena zaintzeko aberastasun eta poztasun iturri izatea denontzat.

-Ikastolaren elkarbizitza arauak aztertzea. Araudiaren diagnostikoa egin eta hobetzeko neurriak ere inplementatzea.

-Harremanak hobetzeko bidean, proposamenak, egonezinak, eta iradokizunak jasotzea estamentu guztiengandik, era horretara, gatazkak konpontzen eta elkarbizitza osasuntsua eratzen ikasteko.

-Eguneroko martxan sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko ekintza-protokoloak proposatzea.

-Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota inderkeriazko kasuak detektatzea (triptikoak dibulgatu, galdeketak, soziogramak...) eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatzea.

-Informazioa jasotzea, beste arlo batzuetan bizikidetzaren nola garatzen den jakiteko, eta gure inguruan diren baldintzak eta ekimenak zein diren ezagutzeko.

-Lankidetzaren sustatzea inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, bizikidetzaren positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.

-Ezinbestekoak dira komunitate osoko kideen lankidetzaren, konpromisoa eta erantzukizunen banaketa.

Horretarako kolektibo bakoitzak argi izan behar ditu bere funtzioak bizikidetzaren planaren garapenean eta funtzio horiekin ados egon:

-Zuzendaritza taldeari dagozkionak:

-Bizikidetzaren plana babestu eta bultzatu.

-Langileak babestu eta egiten den esfortzua aintzat hartu.

-Planaren zehaztapen prozesuan parte hartu.

-Hartutako erabakiak eta adostutako prozedurak jarraitzen direla zaintzea.

-Irakasle eta familien arteko lankidetzaren eta elkar-ulertzearen bultzatu.

-Irakasle- langileei dagozkienak:

- Bizikidetzaren eredu kurrikularra diseinatzeko eta gauzatzeko ardura hartzea.
- Jarraituko den bizikidetza ereduaren gain gurasoak jakinaren gainean jarri.
- Ikasleekin beharrezkoak ikusten diren jarduera guztiak gauzatu gelako bizikidetza hobetzeko.
- Lankideekin gelako gatazken ebazpenean izandako esperientziak partekatu.

-Ikasleei dagozkienak:

- Berdinen arteko tratu txarrak ekiditeko ikastolan abian jartzen diren ekimenetan parte hartu.
- Bizikidetza arauen diseinuan, arau hauste horien neurri zuzentzaileen zehaztapenak eta ikuskatze prozesuetan parte hartu.
- Ez onartu tratu txarrak ezta errespetu faltarik agertzen duen egoerarik.

-Familiei dagozkienak:

- Ikastolan bizikidetza hobetzeko eta tratu txarrak ekiditeko eskaintzen diren prestakuntzetan parte hartu.
- Erantzukizun konpartitua aintzat hartu eta irakasleekin akordioak bilatu.
- Etxetik lagundu neurri hezitzaileekin.
- Bizikidetzarako arauen garapenean lankidetzan aritu.
- Ikastola informatu hainbat arrisku egoera adierazleez.

-Beste eragailu—hezitzaileei dagozkienak:

- Beraien lankidetzara eskaini ikastolari.
- Elkar koordinatu.
- Planaren garapenerako etekin handiena atera dakizkiekeen jarduerak garatu.

Bileren plangintza

Bere funtzioak aurrera ateratzeko **gutxienez hiru bilera** egingo dira:

1. Ikasturte hasieran. Urteko Bizikidetza Planaren eraketa eta difusiorako.
2. Ikasturtean zehar bilera bat. Urteko Bizikidetza Planaren jarraipena eta ebaluaziorako.
3. Ikasturte amaieran. Urteko Bizikidetza Planaren ebaluazioa eta memoria.

4.2 Etapako bizikidetza batzordea (LH eta DBH-BATXI)




Tresna baliotsua da eguneroko dinamika parte-hartzaile eta zabala lortzeko. Irakasle eta irakasleen kezkek bideratzeko modu antolatua da. Bertan gai desberdinak jorra daitezke: ikasle-irakasleen arteko harremanak, ikasleen proposamen zehatzak, ikasleen arteko arazoak...

Osaketa

Etaparen arduraduna, etapako bizikidetza erreferentea eta orientatzailea osatuko dute.

Funtzioak

- Etapako urteko bizikidetza planaren jarraipena egitea.
- Jazarpen kasuen jarraipena egin eta esku- hartzeko tresnen proposamena egin ikasle, irakasle eta tutoreentzako.
- Bizikidetza ebaluazio prozesuak kudeatzea, beharrak eta proposamenak Etapa eta Zuzendaritza Taldeari luzatzeko.

- 
- 
- 
- Tutore, ikasle zein gurasoentzat formazio saioak antolatzea, jarrera desegokiei aurre egiteko.

Bileren plangintza

- Hamabostean behin bilduko da.
- Jazarpen kasuetan beharrezkoa denean.

4.3 Gelako bizikidetza batzordea

Gelakide guztion harreman egokiak zaindu eta bermatzeko taldea, errespetua eta elkarlana bultzatzen dituena. Gela barruko zein gelaz kanpoko harremanetan izaten diren gertakari positiboak eta negatiboak behatu eta gelako taldea ohartarazteko taldea da.

Tutorearekin batera guztion interes eta beharrak aztertzeko; ikastolako, gelako, jolas-eremuko, jangelako... arauak adosteko; sortzen diren gatazkak bideratzen laguntzeko...

Tutorearekin batera egokiak eta desegokiak diren jokabideen jarraipenaren ardura izango du.

Osaera

Lau edo bost ikaslek osotzen dute batzorde hau tutorearen gidaritzapean. Ikasle taldea hamabostean behin aldatuko da.

Funtzioak

- Gelako bizikidetzaren jarraipena egin tutorearen laguntzaz.
- Gela barruko zein gelaz kanpoko harremanetan izaten diren gertakariak behatu, gertaera positiboak aintzat hartuz eta arauen jarraipena bideratuz.
- Gela bakoitzean bitakora koaderno bat egongo da eta horren arduradunak izango dira.

5. ELKARBIZITZA KUDEATZEKO PREBENTZIO PROGRAMAK

Era honetako programen helburu orokorra ikasleek elkarbizitzarako eta gatazkak ebazteko baloreak, jarrerak eta konpetentziak garatzea da.

5.1 KiVa PROGRAMA LH eta DBHn

KiVa eskola-jazarpenera prebenitzeko eta jazarpen-kasuei modu eraginkorrean aurre egiteko Finlandiako Turku Unibertsitateak (Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren babesaz) garatutako **jazarpenaren kontrako programa** da.

Helburuak:

- Bullying-en prebentzioa.
- Jazarpenaren abordatze eraginkorra egitea.
- Jazarpenaren eragin negatiboak gutxitzea.

Gainera, bide horretan ikasleek beste balore garrantzitsu asko ikasten dituzte:

- Besteak errespetuz tratatzen.
- Ikaskideen presioari eusten.
- Norberaren ardura hartzen.

Osagai nagusiak:

Ekintza orokorrak, hala nola KiVa curriculum (ikasleen ikasgaiak eta online jokoak), esperietzian oinarritutako ikaskuntza ikasle guztientzat dira, eta jazarpena prebenitzeko xedea dute nagusiki. Berriazko ekintzak, berriz, jazarpen-kasu bat gertatzen denean erabiltzekoak dira. Haien jomuga jazarpenean erasotzaile edo biktima gisa parte hartu duten haur eta nerabeak dira, bai eta beste ikasleak biktimari babesa ematera animatzea ere. Helburua jazarpena gelditzea da.

Ezaugarri nagusiak:

- Ekintza orokorrak, tutoreak ikasleekin tratatzen dituenak, eta berriazkoak, KiVa taldeak aurrera eramaten dituenak.
- Material eta tresna zehatz ugari: erregistroak, txalekoak...
- Ikaskuntza-ingurune birtualak erabiltzen dira (bideo jokoak).
- Talde osoan du eragina, rol guztiak kontuan hartzen ditu.
- Oso sistematikoa da.

Ekintza orokorrak:

- Ikasleen galdetegia urtero.
- Posterrak.
- Erraz ikusteko moduko txalekoak jolas-orduko begiraleentzat.
- KiVa ikasleen ikasgaiak.
 - Maila jakin batzuetan ematen dira ikasturte osoan zehar, hamabostean behin.

- Gurasoen Gida

5.2 ADIMEN EMOZIONALA

Geure sentimenduak eta besteenak ezagutzeko, motibatze eta harremanak egoki maneiatzeko gaitasuna da Adimen emozionala, jarrera, trebetasun eta gaitasun multzoa eta norbanakoaren jokabidea, erreakzioak, egoera mentalak, baldintzatzen dituzte.

Bisquerraren ustez heziketa emozionala zera da “prozesu hezigarria, jarraitua eta iraunkorra, eta bere helburua da garapen emozionala indarzte ezagutza-garapenaren ezinbesteko osagarri gisa, biak izanik nortasunaren integralaren garapeneko funtsezko elementuak. Ikasleak ezagutza eta gaitasunekin trebatzea, hauek emango baitiote aukera bizitza personal eta profesionalari arrakastaz aurre egiteko, eta bere ongizatea handitzeko osasun eta elkarbizitza mailan.

Hezkuntza emozionalaren helburuak (Bisquerra, 2000):




- Ikaslearen garapen integrala sustatzea.
- Norbere emozioak hobeto ezagutzea.
- Besteen emozioak identifikatzea.
- Norbere emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzea.
- Emozio negatiboen ondorio kaltegarriak ekiditea.
- Emozio positiboak garatzeko trebetasuna garatzea.
- Automotibatze trebetasuna garatzea.
- Bizitzeko jarrera positiboa izatea.
- Pertsonarteko harremanak hobetzea.
- Ongizate pertsonal eta sozialerako bizi-trebetasunak garatzea.

Hezkuntza emozionalaren helburu zehatzak:

- Estresa, antsietatea eta depresioa ekidin eta kontrolatzeko gaitasuna garatzea.
- Ongizate subjektiboa bultzatzen duten faktoreen kontzientzia hartzea.
- Umore-sena garatzea.
- Epe luzeagoan lor daitezkeen sari handiagoen alde berehalako sariak geroratzeko gaitasuna garatzea.
- Atsekabeari aurre egiteko estrategiak garatzea.

Edukiak:

- Adimen emozionala.
- Gure eta besteen emozioen ezagutza.
- Autoestimua.
- Automotibazioa.
- Empatia.
- Gatazken ebazpena.
- Bizitzeko trebetasunak.
- Trebetasun sozialak.
- Emozioen ulermen eta erregulazioa.



Adimen amozionalak bost gaitasun mota eskatzen ditu. Lehenengo hirurek pertsona barruko izaera dute eta azken biek pertsonarteko izaera.

1. Pertsonabarruko kompetentziak, **NORBERA IZATEN IKASI**.

- **Kontzientzia emozionala:**

- Zer sentitzen dugun jakitea.
- Sentitzen ditugun emozioei izena jartzea. Hiztegi emozionala.
- Besteen emozioak identifikatzea eta horiez kontziente izatea.
- Norbere egoera emozionalaren kontzientzia hartzea.
- Emozio guztien esanahia ulertzea eta emozio bakoitzaren abantailak eta desabantailak ezagutzea.

- **Erregulazio emozionala:**

- Erregulazio emozionalerako estrategiak: barne elkarrizketa, lasaitzea, berregituratze kognitiboa, eta abar.
- Emozio positiboak garatzeko estrategiak.
- Sentimendu eta bulkaden erregulazioa.

- **Autonomia emozionala:**

- Identitate nozioa, norbere burua ezagutzea (autokontzeptua).
- Norbere gaitasunak eta mugak positiboki baloratzea.

2. Pertsonarteko kompetentziak, **ELKARREKIN BIZITZEN IKASI**.

- **Trebetasun sozioemozionalak:**

- Besteak modu aktibo eta dinamikoan entzutea. Horren bidez besteak garrantzitsu sentiaraziko ditugu.
- Kritikak modu konstruktiboan egitea eta hartzea.
- Besteak ulertzea eta, era berean, besteek uler gaitzaten lortzea.
- Jokabide asertiboa izatea. Horretarako, egiazaleak izateko prest egongo gara eta pentsatzen, sentitzen edota besteen aurrean egiten duguna argi adieraziko dugu.
- Unean-unean sortzen diren gatazkei zentzuz aurre egitea.
- Etxekoekin zein lanekoekin harreman onak izatea.
- Talde-lana egitea eta taldekideak proiektu eta helburu ezberdinetan inplikatzeko.

- **Bizitzeko eta ongizaterako trebetasunak:**


- Denbora, lana edota betebeharrak antolatzeko trebetasunak eta garapen pertsonala eta soziala.
- Familiartean, eskolan eta gizartean bizitzeko trebetasunak.
- Bizitzan jarrera positiboa eta errealista izatea (banakako ekintza-planen bidez).

6. ELKARBIZITZA HOBETZEKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK

Elkarbizitzarako hezteak eskatzen du ikasleei, hasierako etapetatik, ikastolan sortzen diren benetako gatazkak, elkarlanaren eta elkarriketaren bidez, bere kabuz ebazteko aukera ematea. Esperientzia hau funtsezkoa da ikasleek gizarte-trebetasunak eta gatazkak ebazteko kompetentziak eskura ditzaten eta elkarbizitzaren oinarritzko baloreak barnera ditzaten.

Ikastolan gatazkak ebazteko elkarlan-prozesuak martxan jartzea da eraginkorrena, hezkuntza-komunitateko kideei eguneroko gatazkei elkarlanean eta era baketsuan heltzen lagunduko du.

Ikastolan egunero izaten den gatazka aniztasunak prozesu eta metodologia batzuen beharra eskatzen du. Piramide honetan adierazten direnak adibidez.



Piramidearen oinarrian gatazkan inplikaturako aldeei autonomia eta protagonismo handiagoa ematen dioten esku-hartze proposamenak kokatzen dira.

Piramidearen goikaldean gatazkaren ebazpena errazten duen hirugarren alde neutral baten esku-hartzea eskatzen duten prozesuak daude.

6.1. ELKARRIZKETA HEZIGARRIA

Elkarrizketa hezigarria ezinbesteko tresna da irakasleentzat. Oso tresna eraginkorra da:

- Bai ikasle edo/eta gurasoekin erabakiak elkarrekin hartzeko edota arazoak, gatazkak lantzeko.
- Elkarren ezagutza sustatzeko.
- Pertsonarteko komunikazioa hobetzeko.

- Harreman hurbilagoa finkatzeko.
- Protagonisten arteko konfidantza eta lotura areagotzeko.

Proposatzen den elkarrizketa elkarlan izaerakoa da. Elkarrizketatutako pertsonaren inplikazioa eta parte hartzea funtzezkoa da emaitza ona lortzeko. Elkarrizketa ezin da bakarrizketa edo galdeketa bihurtu, baizik eta pertsona elkarrizketatuaren protagonismoan zentratu behar da, nahiz ikaslea, aita, ama edo tutore legala izan; honen konpromisoa eta ardura bilatu behar da eta hartutako erabakiak gero baliozkoak izatea.

PRAKTIKA ONAK ETA TXARRAK ELKARRIZKETA HEZIGARRIAREN GARAPENERAKO

Zenbait jarrerak eta estrategiak lagundu egiten dute elkarrizketa hezigarria ondo garatzen, baina beste batzuek zaildu.

Bereziki erabilgarria izango da:

- Enpatia, ulermena eta elkarlana sustatzea.
- Hurbiltasuna erakustea eta doinu positiboa sortzea.
- Protagonista guztiak inplikatzeko irtenbideak bilatzen.
- Elkarrizketatutako pertsonaren alderdi positiboak azpimarratzea (indargarri positiboa).
- Komunikazio eraginkorraren teknikak erabiltzea (entzute aktiboa, lehen pertsonako mezuak, hizkuntza deskribatzailea,...).
- Hitzik gabeko hizkuntza positiboa erabiltzea (irribarrea, doinua, keinuak, begirada,...).

Hainbat jarrera edo jokaera oztopo izango dira elkarrizketaren helburuak betetzeko:

- Egoerak hutsaltzea edo garrantzia kentzea honelako esaldiekin: “*seguru azken ebaluazioan dena hobeto joango dela*”, “*ez da ezer gertatzen errepikatzeagatik*” edo “*lasai, guztioi gertatu zaigu hau bere adinean*”.
- Ikasleari, familiari edo sistemari leporatzea errua. Errudunak bilatzeak ez du laguntzen elkarrizketatua inplikatzeko, ezta egoera hobetzeko irtenbideak aurkitzen ere.
- Eredutzat beste ikasle batzuk edo norbera hartuta konparatzea kalterako izaten da.
- Galdera gehiegi eginez galdeketa egiteak defentsa-jarrera sorrarazten du elkarrizketatuarengan.
- Itotzea. Garrantzitsua da denbora egokia aurreikustea elkarrizketarako eta itomenik gabe igarotzen uztea.
- Kritikak edo epaitzak borroka dinamika sortzen du eta elkarlanerako jarrera oztopatu egiten du.

ELKARRIZKETA HEZIGARRIAREN EGITURA ETA FASEAK:

1.Fasea: Prestaketa.

1.1 Oinarrizko informazioa bildu landu beharreko gaiari buruz

Aldez aurretik elkarrizketan landu beharreko arazo edo gaiari buruzko informazioa eskuratzea oso baliagarria izango da. Aintzat hartu beharreko alderdi batzuk honako hauek dira: pertsona inplikatuak eta bere egoerak edo ezaugarriak, gertaerak, kausak eta ondorioak, eta inplikatu bakoitzaren interes edo beharrak.

1.2. Aurretiko hipotesia egin bildutako informazioan oinarrituta.

Gertaerari buruzko eta balizko irtenbideei buruzko hipotesia egiteak bidera dezake, hasiera batean, elkarrizketa. Baina, saihestu egingo dugu ikasle elkarrizketatuari hipotesi hau komunikatzea era honetako adierazpenekin: “hemen arazoa da...” edo “badakit zer gertatzen zaizun...”

1.3. Elkarrizketa planifikatu

Elkarrizketa planifikatzeak eskatzen du jarraituko ditugun faseak berrikustea eta bereziki erabilgarriak diren esku-hartze zehatzak prestatzea (zein indargarri positibo erabil dezakegun elkarrizketatuarekin, nola adierazi hasieran elkarrizketaren gaia, komunikazio eraginkorreko zein teknika erabiliko ditugun, etab.).

1.4. Hitzordua jarri

Komenigarria da hitzordua jartzea, hau da, pertsonari elkarrizketarako deia luzatzea, pribatua eta toki egokian, landu beharreko gaia aipatuta. Aukeratutako data eta ordua egokiak izan behar dira bientzat eta elkarrekin adostuak.

Elkarrizketarako lekua garrantzitsua da. Ziur egon behar dugu leku honek pribatutasuna bermatuko duela, eta ez dela zaratarik eta etenik izango.

2.Fasea: Irekiera.

2.1. Kokatu

Kontuan izan beharreko beste alderdi bat zera da, pertsona bakoitzak elkarrizketarako gelan eta mahaian hartzen duen lekua. Mahai borobil batek komunikazioa erraztu egingo du eta, halakorik ez bada, ohiko mahai baten ertzetan kokatuko dira, hurbiltasuna eta konfiantza igortzeko aukera eskaintzen baitigu. Aitzitik, pertsonak aurrez aurre kokatzeak distantzia markatzen du.

2.2. Aurkezpena eta elkarrizketaren kokapena egin

Elkarrizketa hastean, komenigarria da parte hartzaile bakoitza aurkeztea (hala badagokio) eta elkarrizketaren arrazoia eta iraupena azaltzea. Arrazoen lehen azalpen hau modu deskribatzailean egiteak saihestu egiten du solasaldia zailtzen duten balorazio edo epaiekin ematea hasiera elkarrizketari. Esate baterako, “*Nerea, bilera honetara deitu zaitut atzo gorputz hezkuntzako klasean izan zenuen portaera onartezina delako eta gertatu dena oso larria delako*” esan beharrean, “*Nerea, bilera honetara deitu zaitut esan didatelako atzo gorputz hezkuntzako klasean zerbait gertatu zela eta bukatu baino lehen alde egin zenuela*” esango dugu.

2.3. Doinu positiboa sortu

Konfiantza giroa eta doinu positiboa sortzea funtsezkoa izango da elkarrizketaren garapenari begira. Elkarrizketatzailearen zeregin hau fase honetan hasiko da eta prozesu osoan zehar jarraituko du edo tartekatuko da.

Hona hemen horretarako hainbat estrategia:

- Asmo positiboak erakutsi, esate baterako “*gorputz hezkuntzako klasean gustura egotea nahi dut*” edo “*hau konpon dezagun, zuri ahal dudan guztian laguntzeko nago hemen*”.

- Elkarrizketatua onartu eta balioztatu, adibidez *“badakit azkarra zarela”* edo *“estimaten dut zure borondate ona honi buruz hitz egiteko”*.
- Azpimarratu puntu komunak, hala nola *“nik nahi dudana da zuk arazorik ez izatea irakasgai honekin ikasturte amaieran, eta pentsatzen dut zuk ere berdin pentsatzen duzula”*.

2.4. Elkarrizketaren konfidentzialtasuna azpimarratu

Komentatu elkarrizketan esandakoa konfidentziala dela, ez dela publiko egingo. Kasua beste pertsona bati jakinarazi beharko balitzai, prozesuaren funtsezkoa igorriko zaio (lortutako akordioa izan ohi da), xehetasunik gabe, beti ere erreferentziatuz izanik elkarrizketatuari laguntzeko beharrezko jotzen duguna.

2.5. Elkarrizketatzailearen helburuak eta bera laguntzeko eta irtenbideak aurkitzeko asmoa definitu

2.6. Elkarrizketatuaren elkarlanerako jarrera bultzatu

Beharrezkoa da zehaztea elkarrizketak baduela zentzua eta arazoaren irtenbidea posible dela inplikaturako pertsona guztiak prest badaude parte hartzeko, irtenbideak bilatzeko, elkar ulertze aldera hitz egiteko eta aldaketak egingo dituztela hitz emateko. Komenigarria da elkarrizketatuari zuzenean eskatzea jarrera edo konpromiso hau.

3.Fasea: Elkarrizketak helburu duen arazo edo egoeraren analisia.

3.1. Eskuratutako informazioa, datuak era deskribatzailean aurkeztu eta informazio horrekiko norberaren emozioak azaldu

Gaia eskura dagoen informazio objektiboa aurkeztuz planteatu, modu deskribatzailean, epai edo salaketarik egin gabe, esate baterako *“gorputz hezkuntzako irakasleak esan dit atzo eztabaida izan zenutela klasean txistua bota zenuelako lurrera, eta klasetik alde egin zenuela amaitu aurretik”*. Planteamendu baloratzailer batek, adibidez *“zuk atzoko klasean izandako portaera txarraz informatu naute eta gertatutakoa oso larria da”*, elkarrizketatuarengan defentsa-jarrera edo jarrera erasokorra sorraraziko du, eta murriztu egingo ditu solasaldiarekin jarraitzeko aukerak. Gainera, egoera edo arazoari buruz nork bere emozioak komunikatzeak elkarrizketatuaren konfiantza eta elkarlanerako jarrera sustatuko du, esate baterako *“asko kezkatzen nau horrelako zerbait gertatzeak”* edo *“irakasgai honekin arazorik ez izatea nahiko nuke”*. Lehen pertsonako mezuak erabiltzeak erraztu dezake zeregin hau.

3.2. Elkarrizketatuari egoera bere ikuspuntutik azal dezan utzi/eskatu konfiantza giroan

Elkarrizketatuaren ikuspegia eskatu gertatutakoaz edo lantzen ari den arazoaz, bai gertaerei dagokienez, eta bai berak horren inguruan egiten duen balorazioari dagokionez.

3.3. Elkarrizketatuari hausnarketa egin dezan eta adierazten jarrai dezan lagundu jarrera enpatiko baten bidez.

Galdera irekiak erabili hainbat alderdi argitze eta sakontze aldera: gertaeren interpretazioa, emozioak, egoeraren kausak edo zioak, ondorioak, kezkak eta pertsonaren interes edo beharrak. Ez egin galdeketa bat eta erabili entzute aktiboaren teknikak (emozioak

parafraseatu eta islatu) komunikazioa errazteko, elkarrizketatuak hausnar dezan eta ulertua senti dadin lortzeko. Laburpentxoak egin ordenatzeko eta garrantzitsuena azpimarratzeko, eta isiluneak egiten utzi hausnarketa errazteko. Balore-epaiak eta kritikak saihestu eta lehen pertsonan hitz egin adibidetzat jartzeko edo aholkuak emateko (“*nire garaian...*” edo “*nire ustez ...zenuke*”)

3.4. Solasaldiari gaian zentratuta eutsi

Batzuetan, gai edo arazo bati buruz hitz egiteak beste gai garrantzitsu batzuk identifikatzera edo definitzera eramaten gaitu. Gai bakoitza bere aldetik lantzeak eta solasaldian ez nahasteak erraztu egiten du irtenbideak bilatu eta erabakiak hartzea. Uste badugu badela beste gai edo arazo garrantzitsu bat, beste elkarrizketa bat egingo da lantzeko.

4.Fasea: Irtenbideen bilaketa edo aukeraketa.

4.1. Elkarrizketatua irtenbideak proposatzen eta aukeratzen inplikatu

Elkarrizketatua irtenbideen bilaketan eta aukeraketan protagonista bihurtzea funtsezkoa da bere konpromisoa eta ondorengo ardura handitzeko. Elkarrizketatzaileak ekin eta ekin egingo du elkarrizketatuarengandik irtenbide proposamenak lortzen.

Galdera batzuk bereziki erabilgarriak izango dira horretarako:

“*zer egin zenezake/genezake egoera hobetzeko?*”, “*zer aldatu behar dugu arazoa konpontzeko?*” edo “*zer gehiago bururatzen zaizu?*”. Azken aukera gisa, elkarrizketatzaileak ere iradoki ditzake arazoa konpontzeko ideiak.

Bigarrenik, aztertu balizko irtenbide bakoitza, alde onak eta txarrak baloratu, bideragarritasuna eta erabilgarritasuna baloratu, eta aztertu ikaslea gai sentitzen den irtenbide horiekiko hitza eman eta betetzeko.

4.2. Akordio negoziatuak eskatzen dituzten erabakiak hartu arazoa edo gatazka konpontzeko

Negoziatu arazoa ondoen konponduko duten neurriak adosteko. Elkarrizketatuak bereganatu egin beharko ditu lortutako akordioak. Idatziz jaso akordioak ahalik eta xehetasun gehienez (zer, nola, non, noiz, etab.) eta sinatu.

5.Fasea: Itxiera.

5.1. Elkarrizketan zehar hitz egindakoaren laburpena egin

Landutako gaiak laburbildu, egindako aurrerapenak azpimarratuz.

5.2. Argi eta garbi azaldu ondorioak eta lortutako akordioak

Azpimarratu, lasai, ateratako ondorio eta akordio bakoitza, eta ziurtatu elkarrizketatuak berdin ulertzen duela eta bat datorrela.

5.3. Beste elkarrizketa bat proposatu eta adostu akordioen jarraipena egiteko

Hitzordua jarri beste bilera baterako, hartutako konpromisoak berrikusteko.

5.4. Indargarri positiboa erabili elkarrizketatuarekin eta gure gogobetetasuna erakutsi elkarrizketarengatik

Elkarrizketatuaren elkarlanerako jarrera azpimarratu, etorkizuneko inbertsioa baita, eta elkarrizketak sortzen duen lotura sendotuko baitu.

6.Fasea: Jarraipena.

Elkarrizketaren jarraipenak, lehendabizi, esku-hartzea idatziz jasotzea eskatzen du, hartutako erabakiak edo akordioak azpimarratuz eta, bigarrenik, beste bilera bat egitea denbora labur bat igarota (aste bat edo bi). Honela, adostutako neurrien betetze-maila berrius daiteke eta bere eraginkortasuna baloratu.

6.2. KONTRATUA

Tresna hau bereziki egokia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, portaera-zailtasun bereziak edo akademikoak dituzten ikasleekin erabiltzeko. Aitzitik, ez da erabilgarria talde osoarekin eguneroko gorabeherak arautzeko.

Kontratua ikasle baten eta bere tutorearen, Zikloko erreferente edo Etapako Arduradunarekin artean egin ohi da, edota ikasle-talde edo talde osoaren eta tutorearen artean. Batzuetan, ikaslearen gurasoak ere izan daitezke prozesuaren partaide.

Dokumentu idatziak, batetik, alde bakoitzak bere egiten dituen konpromisoak eta, bestetik, berauek betetzetik edo ez betetzetik sortzen diren ondorioak jasoko ditu. Kontratuan parte hartzen duen bakoitzak portaera arautzeko balio duten eskubide eta betebeharrak batzuk bereganatzen ditu. Aurretiko negoziazio edo akordio bat eskatzen du eta beronetan agerian jarriko dira kontratuak funtzionatzeko behar diren amore emate eta ñabardura guztiak. Honela, ikasleak bere portaera-aldaketan parte hartze handiagoa izan dezan lortu nahi da.

Kontratua egokia da jokabide-zailtasunak edo ikasteko zailtasunak dituen ikasle batentzat motibagarria delako, iritzi eta desioak adierazteko aukera ematen diolako, eta baita aukera desberdinak hautatzeko eta inizatiba hartzeko ere. Gainera, autorregulazio-prozesua erraztu eta autonomia bultzatzen du.

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

- Kontratua esku-hartzen duten pertsonen artean negoziatu behar da; erabakitze askatasunean, akordioen adostasunean eta hauek betetzeko konpromisoan oinarrituko da. Bestela, erabakia irakaslearena edo zuzendaritza-taldearena bada soilik, alde bakarreko ekintza-plan inposatua izango da, eta, honela, ikaslearen motibazioa, inplikazioa eta konpromisoa murriztu egingo da.
- Kontratua salbuespen gisa erabiltzeko estrategiatzat jotzen da, kasurik konplexuenetarako eta arazotsuenetarako.
- Helburu handietako bat harreman-lotura ezartzea ikaslearekin da, horregatik, azken emaitza negoziatzera eramango duen elkarrizketa-prozesua erabakigarria da.

- Kontratua idatziz jaso behar da eta parte hartzaileek sinatuta. Pertsona bakoitzak kopia bat izango du.
- Egoera edo arazo bera hainbat kontratu jarraitutan islatuko da eta bere edukia pixkanaka joango da garatzen, konpromiso errazenetik zailenera. Lehen kontratuak konpromiso txikiak jasoko ditu, eta handitzen joango dira aurreko kontratuak bete ahala.
- Lehendabiziko kontratuko konpromisoak erraz betetzeko modukoak izan behar dira.
- Kontratu bakoitzaren denbora-epea laburra izan behar da, aste bat edota gutxiago kasu batzuetan.
- Kontratuan alde bakoitzak lortzen dituen ondorioak agertu behar dira, eta baita adostutako jokabideak ez betetzeagatiko ondorioak ere. Ondorio negatiboak arinak izan behar dira hasiera batean, ikasleari gogoa ez kentzeko.
- Lortzen diren ondorio positiboak indargarri sozialak eta jarduerazkoak izan behar dira.
- Komenigarria da indargarri positiboa sarritan erabiltzea.
- Kontratuak berrikusteko edo jarraipena egiteko epea eta modua jaso behar du; epea amaitutakoan egin daiteke edota era jarraituan. Komenigarria da jarraipena maiztasunez egitea hasiera batean, astero edota baita hiru egunean behin ere.

KONTRATU MOTAK

Jarritako helburuen arabera, eta oinarritzko edukiaren eta hartzaileen arabera, kontratu mota esberdinak bereizten dira. Ohikoenak:

- **Jokabidezko, elkarbizitzako edo gatazken ebazpeneko kontratua.**
Bere helburua da jokaerazko izaera duen gatazka edo arazo bat konpontzea, kontratua sinatzen duten pertsonen arteko elkarbizitza hobetzea lortzeko. Era honetako kontratuak arazorik arruntenak hauek dira: disrupzioa ikasgelan, puntualtasuna, absentismoa, ikaskideen arteko errespetu falta... Iraupena aldakorra izan daiteke eta ikasle jakin bati zuzendua egon edota talde osoari.
- **Kontratu akademikoa.**
Bere helburua da ekintza-plan bat jartzea ikasleak errendimendu hobetuz lor dezan. Mota honetako kontratuak eduki arruntak dira, esate baterako, egituratze jarduerak indarzteak, etxerako lanak egitea, eskola-agendaren erabilera, indartzea diziplina, kompetentzia, batzuetan, etab. Iraupena hiruhileko akademiko bat izan daiteke.
- **Errekuperazio-kontratua.**
Bere helburua da gairatu gabeko eduki, lan, ... edo ikasgai baten errehabilitazioa. Iraupen laburra izaten du eta, nagusiki, banakakoa da.
- **Proiektu-kontratua.**
Bere helburua da proiektu jakin bat planifikatzea eta egitea. Iraupen luzea izan dezake, aintzat hartuta faseak ezarri behar direla lanaren aurrerapena baloratzeko. Kontratu hau banakakoa edo taldekoa izan daiteke.
- **Ebaluazio-kontratua.**
Bere helburua da ikaskuntza-jarduerak, -lan edo -sekuentzia baten ebaluazio-irizpideak definitzea. Iraupen laburra izaten du eta, nagusiki, banakakoa da.
- **Kontratu kolektiboa edo taldekoa.**
Bere helburua da talde osoaren xede komuna lortzea. Iraupena alda daiteke, astebetetik hiruhileko batera edo ikasturte osora.

KONTRATUAREN EDUKIA

Ikasle batekin egoera arazotsu bat edo konplexu bat lantzeko eta kudeatzeko egindako kontratuak honako eduki hauek izan beharko lituzke gutxienez:

- Kontratua sinatzen den data eta lekua.
- Parte hartzaileen datuak: izena, abizena, maila,...
- Kontratu-mota: izaera akademikoa, jokabidezkoa, elkarbizitzakoa,...
- Alde bakoitzak hartutako konpromisoak, konpromiso hauek dakartzaten ekintzen xehetasunak zehaztuz.
- Konpromiso bakoitza betetzeagatik edo ez betetzeagatik izango diren ondorioak.
- Kontratua berrikusteko/bere jarraipena egiteko data eta modua.
- Esku-hartutako pertsona guztien sinadura.

6.3 BELARRI-AULKI ETA AHO-AULKIAREN TXOKOA

ERABILERA eta HELBURUA:

Bereziki egokia da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetarako. Elkarrizketarako prozedura eta egitura da; txoko honek ikasleei gatazkak automatikoki, pertsona heldu baten laguntzarik gabe, irakaslerik gabe ebazteko aukera ematen die. Ikasleen artean izaten diren intentsitate baxuko pertsonarteko gatazkak ebazten dira ondoen belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren prozeduraren bitartez.

KOKAPENA:

Bai ikasgela eta bai espazio komunak (pasilloak, ludoteka,...) toki egokiak izan daitezke "txokoa" kokatzeko. Ikasgelan, atzealdean kokatuko da txokoa. Toki horretan bereziki horretarako gordetako lekua eta beste inolako jarduerarik egiten ez dena, bi aulki jarriko dira, eta aulkietako bakoitzaren funtzioa izango da eseriko denari rol bat ematea. Bat belarri-aulkia izango da eta bestea aho-aulkia. Bizkarraldean erantzitako marrazki handi baten bidez bereiziko dira bi aulkiak, batean belarria eta, bestean, ahoa.

Beste aukera bat da kartel bat zintzilikatzea horman bi marrazkiekin edota "piruleta" batzuk sortzea marrazki hauekin.

Berdin espazio komunetan kokatzen bada txokoa.

NOIZ:

Ikasleek gatazka bat dutenean gela barruan, edota atsedenalditik gatazka bat konpondu gabe itzultzen direnean, irakasleak txokora gonbidatuko ditu beren kabuz konpontzen ahalegin daitezten. Proposamena beti gonbidapena izango da, izan ere, bere erabilera borondatezkoa izan behar da.

FUNTZIONAMENDUA:

Gatazka duten bi ikasle bere kabuz joan daitezke txokora, edota irakasleak gonbidatuta, baina beti borondatez joango dira, bestela, prozedurak ez bailuke funtzionatuko. Txokoan, bakoitza aulki batean eseriko da. Tokia gainerako ikaskideengandik bereizita dago, ikasleak bakarrik daude eta bere elkarrizketa pribatua da. Belarri-aulkikoak ahalik eta adien entzungo dio lagunari eta ezin du hitz egin, ezta ezpainak ireki ere, etenik gerta ez dadin. Beste ikaslearena, aho-aulkikoa, da hitz egiteko txanda.

Behin prozesua amaituta, ikasleak irakaslearengana joango dira eta honek gertatutakoaren jarraipen txiki bat egingo du. Galdetuko die ea irtenbiderik aurkitu duten, zertan datzan eta biak gustura dauden konponbide horrekin. Hala bada, ikasleak gelako lanetara itzuliko dira. Irtenbide adostu bat lortu ezean, irakasleak beste aukera edo prozesu bat proposatuko du egoerari heltzeko, esate baterako, bitartekaritza edota ondorio hezigarriren bat betearaztea.

ERABILERAREN ONDORIOAK:

- “Txokoa” ikasleei lasaitzeko balio dien gune bihurtzen da.
- Ikasleek elkarri entzuten ikasten dute.
- Ikasleek elkarrizketa lehen aukera gisa barneratzen dute gatazkaren aurrean.
- Ikasleek gatazkak bere kabuz konpontzen ikasten dute irakaslearengana jo gabe eta irakasleak denbora gutxiago eskaintzen dio zeregin honi.

TXOKOA PRESTATZEKO JARDUERAK:

Ikasgelan “txoko” bat sortzeak eta abian jartzeak ikasleen parte-hartze zuzena eskatzen du. Honela, sorreraren partaide sentiturik, ikasleek berea eta garrantzitsua den zerbaitentzat hartzen dute, lotu egiten zaizkio eta gehiago erabiltzen dute. Inplementazio-prozesuan zehar, ikasleei transmititu behar diegu “txokoa” errespetatu eta ohoratu beharreko espazioa dela, ez dela jolaserako edo denbora galtzeko leku bat, arazoak konpontzeko eta elkarrekin hobeto bizi izateko balioko baitigu.

Horretarako, ordu beteko bi saio gutxienez egin behar dira, eta bakoitzean taldearekin jarduera hauetako bakoitza egingo da.

1. jarduera: belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa sortu

Materialak:

- Lamina/marrazkia edo testu laburra, ikasleen pertsonarteko gatazken adibide bat jasotzen duena.
- Txokoaren funtzionamendurako arau edo urratsen kartel bat.

Iraupena:

- 60 minutu

Helburuak:

- Gatazkek konpontzeko modu desberdinak daudela ulertu.
- Elkarrizketa sustatu gatazkek ebazteko modu gisa.
- “Txokoa”ren funtzionamendua aurkeztu ikasleei.

Prozedura:

1. Ideia-jasa egingo da, ikasleen artean gelan, patioan, autobusean,... ohiko diren gatazka-adibideei buruz. Ikasleek adibide egokirik botatzen ez badute, irakasleak emango dio hasiera jarduerari, ikasleengandik hurbileko pertsonarteko gatazka bat aurkeztuz lamina edota testu labur baten bidez.
2. Ikasleek aipatutako adibideetako bat edo irakasleak aurkeztutako kasua erabiliz, beronen ulermenean sakonduko da honelako galderen bidez: “zer gertatu da?”, “nola sentituko da pertsona bakoitza?”, “zer behar du bakoitzak ondo sentitzeko?”, “nola konpon daiteke arazo hau?”.
3. Ikasleei gatazka ebazteko ideiak botatzeko eskatuko zaie, eta arbelean idatziko dira. Ideia bakoitzerako zera galdetuko zaie ikasleei:
 - “Bi haurrak gustura egongo lirateke irtenbide honekin? (irabazi-irabazi)”.
 - “Haurretako bat triste legoke eta bestea pozik irtenbide honekin? (irabazi-galdu)”.
 - Biak triste leudeke irtenbide honekin? (galdu-galdu)”.

Adieraziko da gatazkek, askotan, bi aldeak ondo sentitzeko moduan konpon daitezkeela, biek irabaziz. Hau lortzeko, hitz egin eta arazoa ondo ulertu behar da.

4. Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa aurkeztuko da gelan. Esango da denok elkarrekin eraikiko dugun zerbait dela, ikasturtean zehar izango ditugun gatazkek elkarrizketaren bidez ebazteko, denok irabazten irteteko eta pozik egoteko.
5. Txokoaren funtzionamendu-arauak azalduko dira aurreko atalean adierazi bezala, eta kartel bat jarriko da oinarrizko urratsekin.
6. “Rol play” bat egingo da bi irakasleren edo irakasle eta ikasle boluntario baten artean, txokoan adibidetzat hartutako gatazkaren ebazpena antzetzuz eta bere funtzionamendu-arauei jarraituz. Simulazio hau ikasle boluntario batekin egitekotan, beharrezkoa da aurrez prestatzea berarekin.
7. Lortutako irtenbidea talde osoan komentatuko da.

2. jarduera: Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa sortu

Materialak:

- Bi aulki
- Margoak, kartoiak, kartoi meheak, zeloa, kola,...

Iraupena:

- 60 minutu

Helburuak:

- Ikasleen inplikazioa bultzatu gelan txoko eraikitzen.
- Ikasturtean zehar txokotzat erabiliko diren espazio eta aulkiak prestatu.
- Txokoaren funtzionamendurako jarraibideak ikasi eta praktikatu.

Prozedura:

1. Txokoa kokatuko den tokia aukeratuko da.
2. Ikaskide guztien artean, txokoa prestatzeko egin behar diren elementu edo objektuen zerrenda erabaki eta egingo da.
3. Irakasleak taldeka antolatuko dira eta zereginak talde horien artean banatuko dira:
 - Belarri eta ahoaren marrazkiak, aulkien bizkarraldean itsasteko edo horman

kartel modura jartzeko.

- Txokoaren funtzionamendu-arauen kartela. Irakasleak egin eta aurkeztutako kartela erabil daiteke edota ikasleek berria sortu.
- Txokorako apaingarriak, adibidez, margotutako kartoiez egindako alfonbra bat eta zoruan itsatsita zelo lodiz.
- Txokoaren ondoko horma apaintzeko marrazki batzuk, elkarrizketa edo “irabazi-irabazi” irtenbideak irudikatzen dituztenak.
- Beste batzuk...

4. Egindako materialak jarriko dira, txokoaren espazioa sortuz.

5. Aurreko jarduerako ideia-jasa (ikasleen ohiko gatazken ingurukoa) gogoratuz, komentatuko da ea gatazka horiek konpon ote litezkeen “txokoa”.

6. “Txokoa”ren funtzionamendu-arauak gogoratuko dira eta bi boluntariori “rol play” bat egiteko eskatuko zaie, ideia-jasan identifikatu diren gatazketako baten irtenbidea antzeztea, hain zuzen ere. Antzezpenean zehar gertatutakoa aztertuko da taldean.

7. Lehen hezkuntzako 2. zikloan ikasle-bikoteak osatuko dira bakoitzak berriro antzez ditzan txokoaren funtzionamendu-urratsak, talde osoaren artean aukeratutako gatazka baten bidez.

8. Antzezpenean zehar gertatutakoa eta lortutako irtenbideak aztertuko dira taldearekin.

9. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzako lehen zikloan, 6. urratsa errepikatuko da bigarren aldiz, 7. eta 8. urratsekin jarraitu ordez.

6.4. GELA BATZARRA

Gela-batzarra hezkuntzako etapa guztietan erabil daiteke, HH tik hasi eta Batxilergora. Jakina, bere metodologia, helburuak eta irakaslearen rola aldatu egingo dira ikasleen adinaren arabera.

Gela-batzarra funtsezko tresna da eskola-elkarbizitzan; izan ere, taldeari eragiten dioten gai edo arazoak parte hartze demokratikoaren ikuspegitik lantzeko aukera eskaintzen du. Batzarraean, irakasle eta ikasleek taldearen bizitzari eragiten dioten gai mota guztiez hitz egiten dute; talde-solasari soilik eskainitako denbora eta espazioa da eta, bertan, pertsona bakoitzak askatasunez adieraz ditzake iritziak, ideiak, desioak, proposamenak, eta erabakiak demokratikoki, adostasunez edo bozketaz hartzen dira. Ez da egokia ikasle bati edo ikasle-talde bati eragiten dioten gaiak tratatzeko.

Batzarrek lagundu dezakete ikasgelako giroa hobetzen, izan ere, erraztu egiten baitute taldearen elkarlana, komunikazioa, konfiantza eta kohesioa. Mekanismo egokia da ikasleek ikastolako eta gelako kontuetan parte hartzeko. Esate baterako:

- Ikasleen intereseko gaien analisia/elkarrizketa (akademikoak, elkarbizitzakoak, jolasekoak,...).
- Proiektu edo jardueren plangintza.
- Taldeko gatazken konponbidea.
- Adostutako erabakiak hartu (helburu edo agenda komunak ezarri, arauak jarri...).
- Akordioen jarraipena-analisia.

Gela-Batzarraren alderdi Hezigarriak (Cruz Perez, 1999)

- Gelako gaiez hitz egiteko aukera ematen du, eta honek elkarlana, adiskidetasuna eta konfiantza errazten du, eta taldea kohesionatzen laguntzen du.
- Ikasleek iritzia ematen eta besteena errespetuz entzuten ikasten dute. Eztabaida-gaia alde batera utzita, elkarrizketa berez helburu bat da. Elkarrizketan aritzen ikastea oinarrizko trebetasuna da hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen arteko elkarbizitza errazteko.
- Gelako elkarbizitza antolatzeko ardurak hartzen dituzte, egoera arazotsuak ulertuz eta hobetzeko konpromisoa hartuz.
- Parte-hartze demokratikoaren ikasketa eta akordio, itun eta bozketak egitea.
- Gelako elkarbizitza arautu eta hobetzeko oinarrizko jardura izateaz gain, balore eta jarrerak eskuratzen laguntzen dute, hala nola, errespetua, elkarrizketa, demokrazia, elkarlana, ikaskideari laguntzea, etab.

GELA BATZARRAREN ANTOLAKETA

- **Espazioa eta denbora.**
Lehenengo eta behin, batzarra egingo den espazioa eta garaia definitu behar dugu. Ikasgela eta tutoretza-ordua aukera egokiak dira. Batzarra, idealki, astean behin edo hamabost egunean behin egingo da. Topagune hau ikasturtean zehar sistematikoki egiteko planifikatuta, bere balio hezigarria gehienezko ahalmena izatera iristen da.
- **Gelaren antolaketa.**
Kontuan izan behar da gelaren itxura aldatzeak zeregin desberdin baten aurrean gaudela islatzen duela. Nolanahi ere, ikasleak borobilean jarrita erraztu egingo dugu komunikazio eraginkorra.
- **Gai-agenda.**
Batzarrera eramango diren gaiak ikasleek proposatu behar dituzte, eta euren interesekoak eta kolektibokoak izan behar dira. Zeregin honetarako, bi mekanismo erabili ahal dira:
 - a) gelako horman kartel bat jarri ikasleek proposamenak idazteko
 - b) postontzi bat jarri landu beharreko gaiak idatzita botatzeko.
 Proposatutako gaiak asko eta anitzak badira, lan-talde bat osa daiteke ikasleek eta tutoreak osatua, batzarrera eramango diren gaiak aukeratzeko eta lehenesteko, Gelako-Batzar bakoitzeko gai-zerrenda egingo dutelarik.
- **Batzarraren dinamizazioa edo moderazioa.**
Irakaslearen zeregina batzarrean asko aldatzen da ikasleen adinaren arabera. Ikasleek zenbat eta esperientzia, adin eta trebetasun handiagoa izan, irakaslearen esku-hartzea orduan eta urriagoa izango da. Batzarra moderatzeko edo dinamizatzeko ardura ikasleen esku egon behar du, irizpide orokor gisa. Zeregin hau hartzea ahalmen hezigarri handiko esperientzia da, izan ere, ikasleen inplikazioa, autonomia eta ardura sustatzen baitu, eta baita gizarte eta lidergo gaitasunak ere.

Dena den, irakasleak hartuko du parte batzarra prestatzen eta gai-agenda aukeratzeko. Batzarrean zehar ez du jokatu beste bat gehiago bailitzan, baizik eta, behar denean, batzarraren moderazioan edo dinamizazioan gainbegiratzeko edo esku-hartzeko ardura izango du. Zentzu honetan, laguntzen esku-hartuko du, esate baterako, gaia zentratzen desbideratzen denean, arauak gogorarazten betetzen ez direnean, egoerak argitzen, ideiak sintetizatzen edo elkarrizketari laguntzen ez aurrera eta ez atzera geratzen denean, ikasle guztien parte hartzea bultzatzen edo denbora neurtzen.

Ikasleak dira eztabaidatutako gaien protagonista, eta hobe da bere kabuz iristea ondorioak planteatzera eta proposamenak egitera. Horregatik, zentzu honetan, irakasleak ahalik eta gehien murriztu behar du bere esku-hartzea eta ez eman etengabe bere iritzia.

HAMAR URRATS GELA-BATZARRA BIDERATZEKO

LH 5-6 eta DBH eta Batxilergorako.

1. **Zirkulua.** Batzarra hastean zirkulu bat egin ikasle guztiekin eta ordena eskatu saioari ekiteko.
2. **Agenda ezarri.** Batzarrean landu beharreko gaiak eta helburuak definitu.
3. **Arauak.** "Hitz egiteko eta ondo entzun ahal izateko" arauak ezarri edo berrikusi. Oinarrizko arau hauek iradokiko dira: besteen iritzia errespetatu, etenik egin gabe entzun adi eta errespetuz hitz egin, inori minik egin gabe edo kritikatu gabe.
4. **Gaia.** Batzarraren gaia planteatu. (Adib.: "*zenbait pertsonak esan dute azkenaldian asko iraintzen dela atsedendietan, zergatik gertatzen da hau?, zer egin dezakegu konpontzeko?*".)
5. **Hausnarketa pertsonala.** Ikasleei isiltasuneko minutu bat edo bi eman gaiari buruz bakarka pentsatzeko.
6. **Bikoteak.** Bikoteak egin gaiaren inguruko elkarrizketarako.
7. **Elkarrizketa bikoteka.** Eztabaida egin bikoteka 5-10 minutuz. Bikoteen artean ibili hain komunikatzaile ez direnen eztabaida bultzatzeko.
8. **Analisia talde osoarekin.** Ikasle bikote batzuk gonbidatu gainerako taldekideekin ideiak partekatzera; ideia hauekiko erreakzioak onartu; galderak egin eztabaidak aurrera egiteko; egokia bada akordio batera iristea, izan ditzala hauek: ekintzak, berauek burutzeko modua eta jarraipena. Akordioa, hasiera batean, adostasunez hartzen ahaleginduko da eta posible ez balitz, bozketa gehiengoz.
9. **Batzarraren itxiera.** Batzarra ixteko hainbat modu:
 - Errepasoa: batzarra akordio batekin bukatzen bada, berrikusi.
 - Komentario laburren azken itzulua.
 - Puntu interesgarriak azpimarratu: "*Norbaitek esan du zerbait interesgarria, nahiz eta zuk desberdin pentsatu?*" Ikasleei denbora bat eman pentsatzeko eta gero partekatu.
 - Ikasketa: "Pentsatu gaurko batzarrean ikasi duzun zerbaitetan". Galdera- itzuli bat egin edota boluntarioak eskatu.
 - Galderak: "Baduzue galderarik gaurko gaiaz?"
 - Esaldiak osatu: gonbidatu ikasleak era honetako esaldiak osatzera "orain, batzarra amaitutakoan, pentsatzen dut..., sentitzen dut..., edo espero dut..."
 - Etorkizuneko gaiak: gaiak iradoki hurrengo batzarrerako.
 - Ebaluazioa: "zer gustatu zaizu gaurko batzarretik?, zerk egin du gaurko batzarra eztabaida ona izatea?, zer egin dezakegu hobeto edo desberdin hurrengoan?"
10. **Akta.**

Idatziz jaso Batzarreko punturik nagusienak. Ikasleak inplikatu zeregin honetan adinaren arabera (*Gelako-Batzarren koaderno*).

6.5 BITARTEKARITZA PROGRAMA

Bitartekaritza gatazkak ebazteko metodo egituratua da, bertan, hirugarren alde batek gatazkan dauden aldeei laguntzen die haien kezkak entzunez, komunikazioa erraztuz eta negoziatzen lagunduz.

Eskola-bitartekaritzako programek hauek dituzte helburuen artean:

- Inplikaturako aldeek, edizein arrazoiengatik maneiatu ezin izan dituzten gatazkak ebaztea.
- Komunitateko partaideen parte hartzea onartzea bere gatazken konponketan.
- Gatazkak ebazteko trebetasunak irakastea programan inplikaturako taldeei.
- Elkarbizitza hobetzea.
- Indarkeria mailak murriztea.

Bitartekaritza eredu motak:

1. Helduen aldetiko bitartekaritza. (Bitartekaritza bertikala)

Ikastolan helduek egindako bitartekaritza da, normalean irakasleen eta zuzendaritza-taldeko ikideek egindakoa prestakuntza berezia jasoz. Helduek ikasleei aholkuak ematen dizkiete talde bakoitzak arazoaz dituen pertzepzioa eta sentimenduak aztertzekeo prozesuan, eta baita balizko irtebideak bilatzen eta bi aldeen beharrak ondoen asebeteko dituzten akordioak egiten ere.

2. Berdinen arteko bitartekaritza. (Bitartekaritza horizontala)

Gatazkan dauden aldeen ikaskideak dira bitartekariak. Talde honek trebatze berezia jaso behar du zeregin hau betetzeko. Berdinen arteko bitartekaritza bi era desberdinetan garatzen da:

2.1. Jolastokiko ereduak. (LHrako gomendatzen da)

Ikasleek gatazkaren bat dutenean atsedenaldea edo jangelan, une horretan bertan, jo dezakete adiskide bitartekari batengana laguntza eske. Ikasle bitartekariak identifikaziorako jantzi bat eramaten dute eta txandak antolatzen dira.

2.2. Eredu bideratua (DBHrako gomendatzen da)

Esku-hartze formalagoa da. Gatazka irakasle batek, zuzendaritzako kide batek edo ikasle batek bideratuko du bitartekaritza-zerbitzura; aldeek bitartekaritza egitea onartuz gero bitartekaritza antolatzen da.

6.6 IKASLE LAGUNTZAILEAREN PROGRAMA

Programak ikasle talde bat sortzea eskatzen du eta prestakuntza berezia jaso ondoren, hainbat laguntza-funtzio beteko dituzte ikaskideekin. Helburua, zailtasunak dituzten ikaskideei laguntza-sare zehatz bat eskaintzea.

Ikasle laguntzaileak beteko dituzten zeregin nagusiak hauek dira:

- Laguntzea.
- Entzutea.
- Hausnartzen laguntzea.
- Arazoak aztertzen laguntzea.



- Erabakiak harzten laguntzea.
- Gatazketan bitartekariarena egitea.
- Ikastolako lanetan laguntzea.
- Ikastolara etorritako ikasle berriei harrera egitea.

Helduak dira (Bizikidetza arduraduna) antolatzen, koordinatzen eta gainbegiratzen dutenak.



7. DIZIPLINA IKUSPEGI HEZIGARRIA

Diziplina- ikuspegian ahalmen hezigarria eta konpontzailearen aldeko apostua egiten da Larremendi Ikastolan. Diziplina eredu honi diziplina hezigarria, diziplina positiboa edo diziplina demokratikoa deitzen zaio.

Zigor-diziplinako eredu tradizionalen aurrean, diziplina positiboaren ikuspuntuak ikasleen garapen eta autonomia morala bultzatu nahi du, ikastolan adostutako arau-sistema baten bidez; arauak betetzen ez direnean izaera hezigarria duten ondorioak beteko dira zigorren ordez.

Arauen ondorio hezigarriek izaera berreskuratzailea dute, eta balio behar dute araua bete ez duen ikasleak gabezia duen gaitasunen inguruan zerbait ikas dezan, hau da, urraketa horrekin agerian jartzen diren gaitasunen inguruan.

Segidan agertzen den koadroan diziplina zigortzailea eta diziplina positiboaren arteko aldeak nabarmentzen dira:

DIZIPLINA ZIGORTZAILEA	DIZIPLINA HEZIGARRIA
Kanpoko erregulazioa, indargarri positiboan edo negatiboan zentratuta.	Autorregulazioa.
Ezarritako arauak.	Adostutako arauak.
Autoritatea irakasleen nagusitasun hierarkikotik dator.	Autoritatea sistematik dator.
Zigorra (indargarri negatiboa)	Ondorio hezigarriak.

Arauek ondorioak behar dituzte

Arauek ondoriorik gabe edukitzeak, edo irmo eta sistematikoki aplikatzen ez diren ondorioekin, mezu argia transmititzen du: mugarik ez dagoela eta diziplina sistema ahula dela.

Zigorak edo Ondorio hezigarriak

Zigorak gehiago funtzionatzen du mendeku edo ordain gisa, gehiago laguntzen du minutako pertsonaren emozioak deskargatzen, araua urratu duenari beragandik espero den jokabidea ikasten laguntzen baino.

Ondorioek izaera hezigarriagoa eta berreskuratzaileagoa dute. Izan ere, harreman zuzena dute egindako hutsegitearekin eta bideratuago daude arau-hausleari bere jokabidearen ondorio negatiboak ikusarazten laguntzera eta aldatzera, zigortzera baino.

Neurri edo ondorio hezigarri desberdinak daude, baina aukera bakoitzak arau-haustearekin zerikusia duten gaitasunak garatzea ahalbidetu behar du.

Edozein ondorio edo neurriren aurrean, zera galdetu behar diogu gure buruari: *Zer ikasiko du ikasle honek eginkizun honekin?* Eta hartutako neurria sostengatzen eta justifikatzen duten erantzun argia izan behar du.

Helburua da arau-haustea aukera hezigarri gisa ikustea, ikasleak ez dakien zerbait ikasteko edo ez daukan gaitasunen bat trebatzeko egoera gisa.

7.1 Ondorio hezigarrien oinarritzko ezaugarriak

- Ondorioek oso zehatzak izan behar dute, ez du zalantzarik egon behar bete ote diren edo ez.

- Urratutako arauaren larritasunarekiko proportzionalak izan behar dute.
- Ez dute ikaslearen auto-estimari eraso egin behar, ezta pertsonaren oinarrizko eskubideak urratu behar.
- Araua bete ez duen ikasleak eragindako egoera zuzentzera edo sortutako arazoa konpontzera zuzenduak izan behar dute, bere jokabidea zigortzera baino gehiago.
- Ondorioak zerbait ikasten lagundu behar dio ikasleari. *Ikasle honek hobetu behar duen gaitasunarekin zerikusia duen zerbait ikasiko du?*
- Zenbait ondorio mailakatu ezarri behar dira, bigunenetik zorrotzenera, eta progresiboki aplikatuko dira, jokabidearen larritasunaren edo errepikatzearen arabera.

Lehendabiziko ondorioak ez badu lortzen jokabidea kontrolatzea, ez da eraginkorra izango berriro aplikatzea, eta zerbait desberdina egin beharko da.

7.2 Ondorio hezigarrietarako zenbait proposamen

Komenigarria da neurri hezigarri zehatzen sorta bat izatea ikastolako arau bakoitzari lotuta. Honela irmotasuna handitu egiten da aplikatzeko garaian. Segidan agertzen diren proposamen guztiek dute helburu “diziplina-krisiaren” momentua gure ikasleentzako aukera hezigarri gisa irmotzea.

7.2.1 OHARTARAZPENEA

Ohartarazpena abisu bat da, bere helburua santzinoa ez gertatzea izanik. Ikasleari bere jokabidea zuzentzeko aukera ematen dio, ondorio bat etorri aurretik.

Hezigarria edo punitiboa izan daiteke, erabilitako estiloaren eta edukiaren arabera.

Punitiboa: Ohartarazpena haserre eta urduri egiten bada, ohiuka eta mehatxuka, persona kritikatu eta deskalifikatu, ironia erabiliz,...

Hezigarria: Ohartarazpena lasai egiten denean, pribatuan, laburra denean eta poliki eta baxu hitz egiten denean, eta ikaslea erabat errespetatu egiten denean.

Izaera hezigarriko ohartarazpenaren edukia:

- Araua urratsen duen jokabidea ikaslea epaitu gabe, kritikatu gabe deskribatu.
- Jokabide hori gelan/ikastolan ez dela onartuko adierazi.
- Arrazoiak eman gainerako ikasleen eta irakaslearen eskubideak edota taldearen arauak aipatuz.
- Ez betetzearen ondorioak iragarri.

Ezinbestekoa da, ohartarazpena egiterakoan, ez erreakzionatzea ikaslearen probokazioen, aitzakien edota beste negoziatzeko saio batzuen edota eztabaiden aurrean.

Alderdi hezigarria indartu egiten da “laguntza elementuak” sartzen direnean, elkarreragin negatiboa leundu egiten dute eta ikaslearen kolaborazioa erraztu. Adibidez:

- Elkarrekikotasun argudio bat. *“Nik zu errespetatzen zaitut, zuk ere nik zurekin egiten dudana egiteko eskatu nahi dizut”.*
- Kortesiazk formula bat. *“Mesedez”, “Eskertuko nizuke”.*
- Ikaslearen autonomiara jo. *“Erabakia zurea da”, “Bi aukera dituzu, zure esku dago”, “Zuk jakingo duzu zein den erabakirik burutsuena zuretzat”.*
- Ohartarazpenaren helburua azpimarratu. *“Orain abisatu dizut, izan ere, ez nuke nahi zuk gero arazo eta santzio gehiago izatea”.*

-Indargarri positibo zuzena. “Uste dut persona azkarra zarela”.

7.2.2 ELKARRIZKETA

Arau-hauste baten ondorioz ikaslearekin egiten den elkarrizketa hiru alderdi giltzarri izan behar ditu:

- Gertatutakoaz gogoeta egin dezan lortu.
- Ohartarazpen bat egin.
- Hobekuntzarako konpromisoa lortu.

Bilera honen helburua da ikasleak berak ateratzea ondorioak irakaslearekin izandako elkarrizketaren emaitza gisa.

Elkarrizketak sekuentzia honi jarrai diezaioke:

1. Araua eta araua urratu duen jokabidea hizkuntza deskribatzailearen bidez gogoratu, ikaslea kritikatu eta epaitu gabe.
2. Arauaren garrantziaz gogoeta sorrarazi: *zergatik da garrantzitsua arau hau taldearentzat? Zuretzat? Niretzat?*
3. Ez betetzearen ondorio negatiboak ulertu.
4. Enpatia eragin: *nola sentituko zinatzeke zu, hori egingo balizute?, nola uste duzu sentitu dela zure ikaskidea?, irakaslea?*
5. Araua betetzeko zailtasunak aztertu.
6. Aurrerantzean araua betetzen lagunduko duen konpromiso zehatza lortu.

7.2.3 GOGOETARAKO FITXA

Ondorioak eskatzen du ikasleak, idatziz eta denbora jakin batean, emango zaion formularioa betetzea. Formularioa Beteta, eskatu duen irakasle edo arduradunari emango zaio. Fitxa jasotzea, beti, ikaslearekin arau-haustearen inguruan egindako elkarrizketa edo hizketaldiarekin batera egingo da. Neurriaren izaera hezigarria, nagusiki, helduaren eta adingabearen arteko bileran datza.

Fitxaren helburua da egokia ez den jokabide bati buruzko gogoeta gidatzea, alderdirik garrantzitsuenetarantz bideratzeko (kausak, ondorioak, aukerak eta etorkizuneko konpromisoak).

Fitxa eta elkarrizketa bateragarriak dira erabakitzen diren beste ondorio batzuen aplikazioarekin. Neurri hezigarriak izan daitezke beraiek bakarrik edota beste batzuen osagarri.

GOGOETARAKO FITXA

IKASLEA:

TALDEA:

DATA:

ORDUA:

IRAKASLEA:

- 1. Zer gertatu da? Kontatu gertaerak modu objektiboan, balorazio eta kritikarik gabe (Zer, nola, noiz, eta noekin gertatu den).**
- 2. Zergatik jokatu duzu horrela? Zure jokabidearen arrazoiak.**
- 3. Nola sentitu zara?**
- 4. Nola uste duzu sentitu direla besteak.**
- 5. Zer ondorio izan ditu zuretzat eta beste persona batzuentzat gertatutakoak?**
- 6. Beste zein modutara joka zenezakeen zuk?**
- 7. Zer egin dezakezu kontu hau konpontzeko edota berriro gertatzea saihesteko?**

7.2.4 BARKAMENA ESKATU

Kontzientziaren barru barruko ekintza da, norberaren jokabidearen balorazio morala eskatzen du, eragindako minaz kontziente izatea, damua eta ez errepikatzeko asmoa. Boluntarioa da.

Barkamena derrigorrezko zerbait bihurtzea bere izaerarekin kontraesanean jartzea da. Nolanahi ere, eskatzea erabakitzen bada, beste zerbait ere gehitzea proposatzen da: barkamena zergatik eskatzen den zehaztuko duen azalpen bat, jokabideak sortutako efektu negatiboak edo kaltea, eta ez errepikatzeko asmoa.

7.2.5. KALTEAREN ORDAINA

Eragindako kaltea ordaintzea ahalmen hezigarri handia duen neurria da, araua urratu duen ikasleak ardura hartzea esan nahi baitu, neurri jakinak hartu behar dituelarik.

Ordaina zuzena, zeharkakoa edota sinbolikoa izan daiteke. Ordain zuzena gauzak edo egoera hasierako egoerara bueltatu daitezkeenean sortzen da.

Zeharkako ordaina kaltetutakoa konpondu ezin denean erabiltzen da. Horretarako beste konponketa batzuk edo garbiketa egin dezake ikastolan.

Ordain sinbolikoa minutako pertsonaren edo taldearen aurrean aertzukizuna onartzen eta barkamena eskatzen zehazten da.

7.2.6. LAN KOMUNITARIOA

Kanporaketa klasikoaren ordezkot moduan eragin hezigarri handiagoa izan dezake ikaslea ikastolara ez joatea egun kopuru jakin batean eta, epe horretan, udalerriko entitate edo zerbitzu batean lagunduko du eduki sozialeko eta komunitatearen zerbitzurako zereginetan. Ikaslea egunero lanaldi osorako joango da zehaztutako entitatearen lantokira.

Behin “kanporaketa” denbora igarota, ikasleak idatzizko txostena edo laburpena egin beharko du bizi izandako esperientziari buruz: egindako jarduerak, zer gustatu zaion gehien, zer iruditu zaion zailena, zer ikasi duen ...

Gizarte lanak kanporaketaren ordezkot gisa erabiltzeko protokoloa:

1. Ikaslea informatu bere kasurako egokiak iruditzen zaizkigun “kanporaketa pedagogikoen” aukera desberdinez, “kanporaketa klasikoa” sahiesteko.
2. “kanporaketa pedagogikoa” onartzen badu, familiari horren berri emango zaio.
3. Hautatutako erakunde edo zentroa jakinaren gainean jarriko da eta datak zehaztuko dira.
4. Behin zeregina Beteta, zentroaren balorazioa jasoko da ikasleak berak ematen ez badu.
5. Ikasleak egindako lanaren laburpena idatzizko du eta tutoreari entregatuko dio.
6. Betetako neurria ikastolan erregistratuko da ezarritako prozeduraren bidez eta familiari amaiera jakinarazioko zaio.

1.2.7 GOGOETA EDO / ETA ENPATIA BULTZATUKO DUEN LAN HEZIGARRIA

Komenigarria da zeregin desberdinak definitzea gai espezifikoeekin, arau desberdinen ondorio gisa erabili ahal izateko.

Zeregina izan daiteke: ikerketa lan bat, informazioa bilatzea eskatzen duena, beste pertsona batzuekin hitz egitea, adituekin kontsultatzea edota ikasleari gauzen ikuspegi berria izatea ahalbidetuko diona.

Gainera, lana entregatzeko momentuan, gogoeta sakonduko duen elkarrizketa izango du helduarekin. Beste aukera bat da ikasle arau-hausleari lana ikaskideen aurrean aurkezteko eskatzea.

Segidan ezaugarri hauek dituzten proposamen batzuk daude:

GOGOETA LANA ERRESPETU FALTEN INGURUAN

Ikaskideen artean errespetu faltak errepikatzen direnean eta nolabaiteko larritasuna dutenean, beti ere, bullying egoerak ez direnean.

Jarraibideak:

1. Elkarrizketa egin hiru pertsonari, bat pertsonako, emandako galderekin. Elkarrizketa egingo zaion pertsonetako bat bere familiako heldu bat izango da, beste bat tutoreari eta hirugarrena bere errespetu faltak jasan dituen ikaslearen hurbileko lagun edo ikaskide bat, edo beste irakasle bat.
2. Idatziz jaso behar dira elkarrizketatuengandik eskuratutako erantzunak. Elkarrizketatu bakoitzak elkarrizketa sinatuko du amaitzean.
3. Idatzizko lan bate gin eta bertan alderdi hauek jaso: arau-haustea ekarri duen jokabideari buruz elkarrizketatuek duten iritzia, nola sentitu den iraindutako persona, persona irainduarentzako beste ondorio batzuk, jokabidearen ondorio negatiboak eta errepikatzea saihesteko jarduera proposamena.
4. Hiru elkarrizketak eta lana tutoreari entregatu.

ELKARRIZKETA HELDUEKIN FORMULARIOA

ELKARRIZKETATUA:

DATA:

Azaldu zehatz mehatz elkarrizketatzen ari zaren pertsonari, zein izan den ikastetxeko arauen urraketa ekarri duen zure jokabidea.

“Lan hau eginarazi didate, izan ere, nik”

Elkarrizketatu nahi duzun pertsonari eskatu laguntza galdera batzuei erantzuteko, eta azaldu egin behar duzun lanaren xehetasunak.

- 1. Zer iritzi duzu jokabide honetaz?**
- 2. Nola uste duzu sentitu direla gurasoak, tutorea, irakaslea nire jokabidearekin?**
- 3. Zein beste ondorio dituela uste duzu nire jokabideak?**
- 4. Uste duzu nik honela jokatzeari kaltegarria dela neuretzat? Zergatik?**
- 5. Zure ustez, zer egin dezaket errepika ez dadin?**

Elkarrizketatuaren sinadura.

MUGIKORRAREN ERABILERA DESEGOKIAREN INGURUKO GOGOETA LANA

Ikasleei ikastetxean mugikorra erabiltzea eragozten dien araua behin eta berriz ez betetzearen aurrean, ikerkuntza egin eta behar den informazioa topatzean datza, ondoren, honako galderei erantzuteko idatiz:

- **Zer da mugikorrarekiko menpekotasuna?**
- **Zein dira perTsona batek mugikorrarekiko menpekotasuna izan dezakeela adierazten duten sintomak?**
- **Zer efektu edo eragin negatiBo izan ditzake menpekotasun honek?**
- **Zer egitea aholkatzen dute adituek mugikorraren erabilera kontrolatzeko eta gehiegizko erabilera saihesteko?**

Erantzun bakoitzak gutxienez 120 hitzeko luzera izan behar du, eta informazio-iturriak identifikatu behar dira.

Ikasleak aste berean berriro huts bera egiten badu, hurrengo neurri mailakatua izango da egindako lanaren aurkezpena egitea 10 minutuz bere mailako talde guztietan.

IKASTOLAN EZ ERRETZEKO ARAUA URRATZEN DENEAN

Zereginak eskatzen du segidako galderei idatziz erantzun ahal izateko moduko ikerketa bat egitea. Beharrezkoa da informazio-iturriak identifikatzea, ikerketa-lanak edota osasun arloko iturriak izan behar dute.

Behin lana tutoreari entregatuta, iaksleak bere ondorioen aurkezpena egin beharko du, taldearen aurrean.

Lanerako galderak:

1. **Noiz hasi zinen erretzen? Zergatik uste duzu hasi zinela erretzen?**
2. **Zein gaixotasunek dute zerikusia tabakismoarekin?**
3. **Uste da tabakoaren kontsumoa heriotzaren kausa zuzena dela? Zenbat jende hiltzen da urtean tabakoagatik?**
4. **Nola eragiten dio tabakoak nerabe baten osasunari?**
5. **Zein dira, gaur egun, jendeari erretzeari uzten laguntzeko erabiltzen diren metodotik ohikoenak?**

8. ARAU OROKORRAK

8.1 Ikastola

1. Ikastolan **euskaraz** biziko gara. helburu nagusia Ikastolak duen harreman oro euskaraz buru dadin lortzea da. Horretarako, honakook landu beharko dira.
 - Euskarak ikastolako bilera guztietan izango du presentzia.
 - Gurasoei igorri beharreko gutunak beti euskaraz eta gaztelera idatziko dira.
 - Ikastolaren kanpo-komunikazio guztietan euskarak izango du lehentasuna.
 - Ikastolak bere inguruan antolatzen diren euskararen aldeko ekintzetan esku hartuko du, alderdi politiko edo beste erakunde bakar baten ekimenezkoak direnean salbu.
 - Ahal bada, gurasoekin egin ohi diren gelako bilera orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, baina lehentasuna euskarari emango zaio.
 - Ikastolari eskatzen zaizkion agiri, ziurtagiri, gutun, ordainagiri eta gainerako idatziak euskaraz egingo dira, inork kontrakoa eskatzen ez badu, behintzat.
2. Abenduaren 26ko 28/2005eko LEGEAREN arabera, tabakoaren aurkako osasun-neurriak, salmenta, banaketa eta kontsumoa eta publizitateari dagozkionak kontuan izanik, **Ikastola eremu osoan debekatuta dago erretzea.**
3. Ikastolan ezin da ez **alkoholik**, ez tabakorik ez eta legez kanpoko substantziarik saldu edota hartu.
4. Indarrean dauden Legeen arabera ikasleei **botikak** ezin zaizkie ikastolan eman. Salbuespen bakarrak, gaixotasun kronikoak izango dira, edo medikuak agindutako tratamenduaren jarraipena. Ikastolako idazkia beteta eta sinatuta ekarri.
5. Geletan orduan egongo gara **puntualtasuna** errespetatuz
6. Ikastolara ekartzen diren edozein **jolasen edo aparatuen** ardura ikaslearena da.
7. Derrigorrezko hezkuntzako ikasleek ezin dute **telefono mugikorrik erabili**, ikastolako esparruan eta ikastolak antolatutako ekintzetan. Salbuespen bakarra DBH 4. Mailako ikasketa bidaia.
8. **Patioan** bakarrik erabili ahalko dira makina elektroniko hauek: **MP3ak, MP4ak edota PSP eta horrelakoak**. Hauek beti ikasleen ardurapean egongo direlarik.
9. Klase barruan edo edozein jarduera akademikotan (irteerak, koloniak,...), ikasleak prest egon behar dira edozein ohar entzuteko, beraz, debekatuta dago kontzentrazioa eskatzen duen edozein tresnaren erabilpena.
10. **MP3/4-ak ezin** dira **klasean** ez entzun, ez bistan izan.
11. Gelatik kanpo aurkitutako edozein gauza idazkaritzan utziko da edo / eta DBHko armairuetan.
12. **Ikastola garbi** mantenduko dugu, hala nola, pasilloak, patioak, gelak, jantokia, ... Debekeatuta dago geletan jatea.
13. **Birziklatu** egingo dugu (papera, plastikoa eta organikoa).
14. Pasilloetatik eta ikastola barrutik oinez, **lasai**, oihukatu gabe ibiliko gara.
15. Baloiarekin, pilotarekin, ... pasillo-klasean ezin da jolastu.

16. Ikastolako tresna, altzariak eta **instalazioak zainduko** ditugu ahalik eta egoerarik hoberenean mantenduz eta erabiliz.
17. Leihotik ezin da ezer bota.
18. Jolastorduetan eraikinetik kanpo egon behar da, baimen berezirik ez badago.

8.2. Gelak

1. **Huts egiten** duen ikasleak medikuaren ziurtagiria edo gurasoen oharra edo emaila, datarekin ekarri beharko du.
2. **Oporretan** joan izanagatik huts egiten duen ikasleak, ikaslearen guraso edo tutore legalek tutorea eta etapa arduraduna jakinaren gainean jarriko dute ohar edo email bidez.
3. Bidaltzen diren oharrak, **tutoreari helduarazi** behar zaizkio e-postaz.
4. **Autobusez** ez badoaz egunen batean gurasoen edo tutore legalen **oharra edo emaila tutoreari** ematea ezinbestekoa da.
5. Klasean **komunera** joateko baimena eskatu behar da.
6. **Lanak** amaitu ondoren, gelak eta txokoak txukun (materiala batu, aulkiak kokatu, ...) utziko ditugu garbitzaileei errezteko lana.
7. Erabilera anitzeko gela, irakasleen gela, informatika gela, musika gela, teknologia gela, laborategia, aldagelak, bulego edo beste **instalakuntza** batzuetara sartzeko irakaslearen baimena izan arte itxarongo du.
8. Ikasgelara, irakasleen gelara edo bulegoetara **sartu aurretik** atea joko dugu, agurtu eta baimena eskatuz. Irakaslea barruan dagoela edo haren baimenarekin sartuko gara, beti ere barruan dagoenari irteten utzi ostean.
9. Ikasgelan eguzkitako betaurrekoak, zapiak, eta txanoak, etb... kenduta edukiko da.

8.3 Garraioa

1. **Garraioa ikastolako beste eremu bat da, bertan ere ikastolako arautegia aplikatuko da.**

8.4 Irteerak eta egonaldiak

1. Irteeretara asistentzia beharrezkoa da. Neurri zuzentzailearen bat dela eta jarduera honetara joateko eskubidea galdu badu, ikaslea ikastolara etorri beharko da. Irteerara ez etortzearen erabakia familiarena baldin bada, hauekin hitz egingo da ikastolako beste edozein jarduera bezala bertan parte hartu behar duela adieraziz.
2. Irteeretara **ezin da telefono mugikorrik eraman** ez badu irakasleak besterik esaten. Etxera deitzea derrigorrezkoa bada, irakasleak eramango duen ikastolako telefonotik deituko du. Salbuespen bakarra DBH 4.mailako ikasketa bidaia.
2. Ezin da **baliozko gauzarik** ez eta Nintendo, PSP edo antzeko makinarik eraman; musika entzutekoak berriz, bai (mp3, mp4, ...).

9. HAUR HEZKUNTZA

A. IKASTOLA

1. Ikastolan euskaraz biziko gara.
2. Ikastolako edozein tokitan gaudela ere lasai eta jarrera egokia eta errespetuzkoa erakutsiko dugu.
3. Gelan orduan egongo gara.
4. Gelako arduradunak bere lana egoki beteko du.
5. Ikastolako komunitatea osatzen dugu edonor hitz egiten dagoenean adi egongo gara.
6. Errespetuz tratatuko dira ikastola osatzen dugun oro.
7. Gelako materiala zaindu behar da.
8. Puntualak izan behar gara bai sartzeko zein irteteko orduan ere.
9. Amantalak eta arropa zinta bat eduki behar dute, umearen izen-abizenak letra larriz agertzen direlarik.
10. Haur eskolako haurrak arropa izen-abizenarekin markatuta eta eroso (tirante, gerriko.. gabe) etorriko dira.
11. Haurren segurtasunagatik, ikastolara ezin dute eraztunik, eskumuturrekorik ez katerik ekarri.
12. Familiak oharren bidez eman behar dituzte mezuak eta irakaslearekin batzartu nahi izanez gero ordua eskatu.
13. Arratsaldean gurasoak bila badatoz, adin bakoitzeko familiak dagokion tokian itxaron beharko du.
14. Haurraren tutorearen ordezkari bila beste heldu bat etorriko bada baimen idatzia ekarri beharko du.
15. Ikasleen eskola orduetan, aurretik jakinarazi gabe, sartzeari debekatuta dago.

B. JOLAS ORDUA

1. Jolastokira joan aurretik komuneko zereginak egin.
2. Etxetik ekarritako jostailuak, jolastokian bakarrik erabiliko dira eta gainontzekoetan gelako kutxan gordeta egon behar dira. Galduz gero, haurraren erantzukizuna da.
3. Besteen jostailuak errespetatu (ezin dira apurtu, lapurtu, kendu) behar dira.
4. Haur hezkuntzara mugatuta dagoen jolastokian egon behar dira (pistan, sarrera nagusiko parking-ean ezin dira egon).
5. Eguraldi ona dagoenean kanpoan jolastuko dira.
6. Zerbait behar izanez gero, irakaslearengana edo momentu horretan arduradun dagoen helduarengana jo.
7. Eraikinean lasai eta orden batekin ibiliko dira.
8. Ikasleek kanpoko espazioak zainduko dituzte.

D. GELAK

1. Gelako materiala errespetuz erabili eta zainduko da.
2. Gelak txukun mantenduko dira: materiala batu, aulkiak kokatu...

E. KLASEKO SARRERA- IRTEERA

1. Haur Hezkuntza 1. zikloa.
 - Sarrera: 7:45etatik 9:30ak arte sar daitezke
 - Irteera ordua:

- Bazkal aurretik: 11:30-11:45
 - Siesta aurretik: 12:45- 13:00
 - Arratsaldean: 15:30-17:00
- * Irteera orduak sartzeko erabili daitezke, beti ere aurretik jakinarazita. Bazkal aurretik badator, haur eskolan bazkaldu dezake Siesta tartean etorritz gero bazkalduta etorriko da, hau haurra siestara ohituta badago egin ahal izango da.
- Uztaileko ordutegia: 7:45-16:00

2. Haur Hezkuntza 2. zikloa

- Sarrera ordutegia:
 - 3 urte: 9:30ak arte
 - 4 eta 5 urte : 9:05
- Irteera ordua: 15:55
- Autobusak 16:05
- Familiak bila badatoz 15.50etarako ikastolan egotea gomendatzen da.

* Haurraren bila tutore legalaren ordezkari beste heldu bat badatorren baimen idatzia ekarri beharko du.

F. GAIXOTASUNAK

1. Haurrei sendagaiak ezin zaizkie eman. Aldi baterako medikazioa emateko fitxa idatziz ekarri beharko da.
2. Haur eskolako haurrek, bertako gaixotasun araudia bete beharko dute.

G. ELIKADURA

1. Alergiak: ikasturtea hasieran mediku ziurtagiriarekin batera tutoreari jakinaraziko zaizkio.
2. Haur eskolan: pediatria bakoitzaren jarraibide eta adinaren arabera izango da.

I. URTEBETETZE ETA JOSTAILUAK

1. Haur hezkuntzako ziklo bietan bizkotxo edo gailetak ekarriko dira 2. zikloan nahi izanez gero zuku ere.
2. Ume alergikorik balego, ikasleak jan ditzakeen gailetak ekarriko ditu eta irakaslea arduratuko da.
3. Etxetik ekarritako jostailuak, jolastokian bakarrik erabiliko dira eta gainontzekoetan gelako kutxan gordeta egon behar dira. Galduz gero, haurraren erantzukizuna da.
4. Besteen jostailuak errespetatu (ezin dira apurtu, lapurtu, kendu) behar dira.

10. LEHEN HEZKUNTZA

A. Klasera sarrera-irteerak

Sarrerak eta irteerak:

1. LH1 eta LH2: euren pabelloietako ate nagusitik sartuko dira zuzenean gelara joanez.
2. LH3-LH6: patio gorriko euren lekuetan itxarongo dute irakasleak hurbildu bitartean.
LH3 eta 5: pabelloiko sarrera nagusitik sartuko dira.
LH4 eta 6: pabelloiko atzeko sarreratik sartuko dira.
3. Goizean ikasleak isiltasunean 8:55etan hasiko dira klasera igotzen.
4. Irteerak ate berdinetik egingo dituzte.
Autobusez ez doazen ikasleak familengandik jasoak izango dira pabelloi sarreretan.
Eskolaz kanpoko ekintzak dituzten ikasleak dagokien tokira bideratuak izango dira.
Busez doazenak, irakasleak lagunduko ditu bertararte.
5. Bazkaltzera joateko, monitoreak etorriko dira gelara ikasleen bila. Euren laguntzaz joango dira jantokira eta arratsaldean dagokien gunera.
6. Jantokian bazkaltzen ez duten ikasleek pabelloi sarreretan jasoak izango dira eta ikastolan utziko dira 14.00etan.

B. Jolastordua

1. Jolasordura dagokion gunera eta irakaslearen laguntzaz joango dira sarrera ate berdinetik 11:00etan.
2. 11:30etan igoko dira ikasgelara.

Euria egiten duenean:

1. Gelan geratuko gara.
2. Patio gorria, frontoia eta arraintokia erabili ahal izango dira txandaka.
3. Gehiengoak irtetzen badu hurrengo egunean gunea aldatzen da. Bestela, errepikatu egiten da gunea.

Euria egiten ez duenean:

6. 6 eremu nagusitan banatzen da kanpo espazioa eta txandaka aldatzen dira gunearik.

C. Komunak

1. Komunera baimena eskatu ondoren klase tarteetan banaka joango dira.
2. Klase erdian komunera joateko, baimena eskatu behar dio irakasleari.
3. Komuna zentzuz erabili behar da: ez da papelik lurretik bota behar, ura ez da alferrik erabiliko.

D. Janaria

1. Urtebetetzeak: Nahi duenak, etxetik ebakita datorren bizkotxo bat ekar dezake.
2. Hamaietakoak: Osasuntsua izatea gomendatzen da.

E. Oinarrizko arauak gelan

1. Garaiz iritsi behar da.
2. Euskaraz hitz egiten da.
3. Gela barruan eta pasilluetan ezin da korrikarik egin.
4. Materiala (norberarena eta besteena) eta instalazioak zainduko ditugu.
5. Egunerako behar den materiala ekarri behar da.
6. Zaborra dagokion ontzira botatzen da.
7. Irakasle aldaketa baldin badago, bera etorri arte, gelan egongo gara zai, pasillora irten gabe.
8. Errespetuz jokatu da.
9. Norberaren eta besteen integritatea arriskuan jar dezaketen jokabideak ekiditu.
10. Klaseko martxa egokia bermatzeko tonu egokia erabili.
11. Hitz egiteko, jaikitzeo, komunera joateko... baimena eskatu.
12. Ezin da jan, edan...
13. Etxera joan aurretik gela txukun eta aulkiak mahai gainera igota utziko dira.
14. Ezin da pelotarekin jolastu.

E. Oinarrizko arauak atsedendietan

1. Patiora irten behar da, ezin da gelan edo pasilloetan geratu. Irakasleak lagunduta aterako gara. Salbuespena euria dagoenenean.
2. Egokitutako espazioetatik kanpo ezin da egon.
3. Ikastolatik ezin da atera.
4. Gelak ezin dira barrutik itxi.
5. Patio eta gainerako instalakuntzak garbi mantendu, zaborrak lurrera bota barik.
6. Ikastola komunitateko edozein kideri errespetua gorde eta irakasle, atezain edota zaintzaileen esana errespetatu eta jarraitu.

F. Agenda

1. Beharrezkoa da agenda etxerako lanak, guraso-irakasle oharrak eta kontrolak apuntatzeko.
2. Irakasleek, begiraleek... agendan idatzitako oharrak hurrengo egunean sinatuta ekarri behar dira.

G. Ordenagailuetako armairuen erabilera

Irakasleen ardurak:

1. Ikasleek euren betebeharrak burutzen dituztela konprobatu.
2. Kableak, luzagailuak eta kargagailuak ondo gordeta daudela konprobatu, berauentzako egokitutako kutxetan.
3. Armairua, horretarako egokituriko gelatxoan entxufatuta utziko da.
4. Ordenagailuaren bat txarto badabil, dagokionean eta dagokionari informatu.



Ikasleen ardurak:

1. Norberaren zenbakia duen ordenagailua hartu da.
2. Ordenagailua mahai gainean erabiliko da, ez gara gelatik ordenagailua mugitzen ibiliko.
3. Ondo itzalita itzi.
4. Ordenagailua bere lekuan dagokion kablearekin entxufatuta utziko da.

11.DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA BATXILERGOA

A. Klasera sarrera-irteerak

1. DBH 1 eta DBH 2ko ikasleak patioko atetik sartu eta aterako dira, jolastorduetan ere.
2. DBH 3 eta DBH 4ko ikasleak ate nagusitik sartu eta aterako dira, jolastorduetan ere.
3. Batxiko ikasleak batxilergoko atetik sartu eta aterako dira.
4. Jolastokira irakaslearekin jaitsiko dira.

B. Komunak

1. Komunera baimena eskatu ondoren klase tartetean banaka joango dira.
2. Klase erdian komunera joateko baimena eskatu behar zaio irakasleari.

C. Janaria

1. Jolastokian edo jangelan soilik ahal izango da jan, euria egiten duenean salbu.

D. Oinarrizko arauak gelan

1. Puntuala izan.
2. Behar den materiala ekarri eta chormebooka kargatuta ekarri.
3. Irakaslearen instrukzioak jarraitu.
4. Kideei errespetua izan.
5. Norberaren eta besteen integritatea arriskuan jar dezaketen jokabideak ekiditu.
6. Klaseko martxa egokia bermatzeko tonu egokia erabili.
7. Ezin da jan gela barruan.
8. Etxera joan aurretik gela txukun eta aulkiak taldeka pilatuta utziko dira.
9. Irakaslea sartzan denerako, ikaslek aurreko ikasgaiko materiala bilduta eta hurrengoko materiala prest izango dute.
10. Materiala zaindu (norberarena, besteena eta guztiona).
11. Gelak itxiko dira jolastorduan eta bazkalorduan, une horretan dagoen irakaslearen ardurapean.

E. Oinarrizko arauak atsedendietan

1. Patiora irten behar da, ezin da eraikinean geratu. Salbuespena euria dagoenenean.
2. Egokitutako espazioetatik kanpo ezin da egon.
3. Ikastolatik ezin da atera.
4. Patio eta gainerako instalakuntzak garbi mantendu, zaborrak lurrera bota barik.
5. Ikastola komunitateko edozein kideri errespetua gorde eta irakasle, atezain edota zainzaileen esana errespetatu eta jarraitu.

12.JANTOKIA

12.1. IKASLEEN BETEBEHARRAK

1. Ikastolako gainontzeko espazioetan bezala, jantokiko orduan ere euskaraz mintzatuko gara.
2. Sarrerak eta irteerak lasaitasunez eta bultzadarik gabe egingo ditugu.
3. Mahaian gaudenean jokabide egokia mantendu behar dugu, ez gara mahaitik altxatuko eta zerbait behar izanez gero gure begiraleari eskatuko diogu.
4. Mahai-tresnak dagokien kutxan utziko ditugu eta edalontziak eta erretiluak bere tokian. Bazkari hondakinen lekua zakarrontzia da.
5. Jantokia bazkaltzeko espazio bat da, horregatik, lasai, oinez eta oihukatu gabe ibiliko gara.
6. Ikasleek ezin izango dute kanpoko janaririk sartu jantokian, ez badago baimen berezirik. (Alergikoen kontrola)
7. Ikasleek debekatuta daukate mugikorraren erabilera, DBHn ikastolan dauden bitartean eta Batxilergoan jantokian eta saio lektiboetan, baimen berezirik ez badago.
8. Elikagaiak eta hondakinak ez dira jostailuak, horrexegatik, dagokien erabilera emango diegu.
9. Janaria jantokian jan behar da, debekatutako dago jantokitik janaria ateratzea.
10. Begiraleek eta sukaldariak emandako aginduak bete behar dira.
11. Begiraleei errespetuz zuzenduko gatzai, beraien lana errespetatuz, lasaitasunez eta oihukatu gabe.
12. Baloiak hesitik kanpo erortzen badira, begiraleak hartuko du, ikasleak ezin dira atera ikastolatik.
13. Begiraleen baimena behar dugu geletara sartzeko. Badakigu ezin dela sartu, hortaz, ez ahaztu jakak edota beste beharrezko ezer geletan.
14. Irakasleren batekin gelditu bagara bazkal ostean, bere zain egongo gara eraikinaren kanpoan, berarekin adostu ordua eta lekua.


12.2. BEGIRALEEN BETEBEHARRAK

1. Jantokian ordena mantendu behar dugu; oihuak, jolasak, korrikak, borrokak,... ekidin behar ditugu.
2. Ikasleei errespetuzko jarrerak adieraziko dizkiegu.

3. Beti euskaraz mintzatuko gara.
4. Ikasle bati ondorio, sari edo errefortzu mota bat eman nahi diogunean beste begirale guztiek berdin jokatu beharko dute, ematen den erantzuna koherentea izateko.
5. Ikasleekin hitz egiterakoan lasaitasuna mantendu eta oihuak edo erantzun desegokiak saihestuko ditugu.
6. Arazo larri edo korapilotsu baten aurrean jantokiko koordinatzailearengana zuzenduko gara erantzun adostu bat bilatzeko.
7. Jantokiko koordinatzailea, zerbitzuetako arduraduna eta ikastolako zuzendaritza hilean behin batzartuko dira koordinazio lanak egiteko.

IKASLEEN BETEBEHARRAK	BETEBEHARRAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK
1. Ikastolako gainontzeko espazioetan bezala, jantokiko orduan ere euskaraz mintzatuko gara.	1. Ikasleari araua gogoraraziko zaio.
2. Sarrerak eta irteerak lasaitasunez eta bultzadarik gabe egingo ditugu.	1. Ikasleari araua gogoraraziko zaio.
3. Mahaian gaudenean jokabide egokia mantendu behar dugu, ez gara mahaitik altxatuko eta zerbait behar izanez gero gure begiraleari eskatuko diogu.	1. Mahai- tresnak makineta eramango ditu garbitzera.
5. Mahai-tresnak dagokien kutxan utziko ditugu eta edalontziak eta erretiluak bere tokian. Bazkari hondakinen lekua zakarrontzia da.	1. Jantokian geratuko da bere mahaikideen tresnak batzen.
6. Jantokia bazkaltzeko espazio bat da, horregatik, lasai, oinez eta oihukatu gabe ibiliko gara.	1. Jantokian geratuko da bere mahaikide guztiek bukatu arte eta jolastokira berandu joango da.
7. Ikasleek ezin izango dute kanpoko janaririk sartu jantokian, ez badago maimen berezirik. (Alergikoen kontrola)	1. Kanpoko janaria kenduko zaio.

<p>7. Ikasleek debekatuta daukate mugikorraren erabilera, DBHn ikastolan dauden bitartean eta Batxilergoan jantokian eta saio lektiboetan, baimen berezirik ez badago.</p>	<p>1. Eskatuko zaio mugikorra ikasleari amatatuta, eta jantokiko koordinatzaileak idazkaritzara eramango du eta jakinarazpena emango dio ikasleari.</p>
<p>8. Elikagaiak eta hondakinak ez dira jostailuak, horrexegatik, dagokien erabilera emango diegu.</p>	<p>1. Mahaia garbituko dute eta erratza pasatuko du lurra garbituz.</p>
<p>9. Janaria jantokian jan behar da, debekatutako dago jantokitik janaria ateratzea.</p>	<p>1. Jolastorduan begiraleari lagunduko dio patioa garbitzen.</p>
<p>10. Begiraleek eta sukaldariek emandako aginduei jaramonik ez egitea. Hurrengo baldintzetan: -Agindua ez betetzeko asmoa ageri da. -Agindua ikasleak egindako huts baten ondorioa izan da (ad. Mahaia batzeko agindua ematen zaio)</p>	<p>1. Azalpenak eskatuko zaizkio eta errepikatzen bada, tutorea informatuko da. Jantokiko arduradunak tutorea informatuko du jokabide desegokiagatik, emailez, alexia. (Jantokian ordenagailua)</p>
<p>11. Begiraleei errespetuz zuzenduko gatzai, beraien lana errespetatuz, lasaitasunez eta oihukatu gabe.</p>	<p>1. Azalpenak eskatuko zaizkio eta errepikatzen bada, tutorea informatuko da. Jantokiko arduradunak tutorea informatuko du jokabide desegokiagatik, emailez, alexia 2. Arazo hau bigarren aldiz ematen denean, 3 egun geldituko da jantokiko zerbitzua erabili gabe. 3. Arazo hau hirugarren aldiz ematen denean, 5 egun geldituko da jantokiko zerbitzua erabili gabe.</p>
<p>14. Baloiak hesitik kanpo erortzen badira, begiraleak hartuko du, ikasleak ezin dira atera ikastolatik.</p>	<p>1. Tutorea informatuko da. Jantokiko arduradunak tutorea informatuko du jokabide desegokiagatik, emailez, alexia</p>



	<p>2. Arazo hau bigarren aldiz ematen denean, 3 egun geldituko da jantokiko zerbitzua erabili gabe.</p> <p>3. azo hau hirugarren aldiz ematen denean, 5 egun geldituko da jantokiko zerbitzua erabili gabe.</p>
<p>15. Begiraleen baimena behar dugu geletara sartzeko. Badakigu ezin dela sartu, hortaz, ez ahaztu jakak edota beste beharrezko ezer geletan.</p>	<p>1. Araua zein den gogorraziko zaio.</p>

13. JOKABIDE DESEGOKIEN TRATAERA

13.1 Baliabide eta balore pertsonalak landu

Jokabide desegokia aukera bat da ikasleak hezteko; baliabide eta balore pertsonalak lantzeko bidea irekitzen digu. Horregatik gure helburuak hauek izango dira:

1. Jokabide desegokiari buruzko hausnarketa ikaslearengan sortu.
2. Egindakoa onartetik elkarbizitza egokia berreraikitze bidea jarri.
3. Konpentsatu ahal den neurrian egindako kaltea.

Hori lortzeko erabili ditzakegun **estrategiak**:

-Hitz egin, behin eta berriro, elkarriketa horien helburuak honakoak dira:

-Ezagutu honelako portaeren arrazoiak / atzean legokeen arazoa.

-Egindakoaren larritasuna eta beste pertsonengan dituen ondorioak azaldu; ikastolako elkarbizitzan, gelan, ... horrelako jokabideak onartezinak direla ulertarazi.

-Enpatia landu, beste ikasle/irakasleen lekuan jarriz.

-Egoerari irteera emateko ikaslearen proposamenak eta asmoak bideratu.

-Idatzizko hausnarketak eskatu, izan duten jokabide desegokia azalduz eta horren inguruko balorazioa eginez.

- Eginiko kaltea konpondu edo leuntzeko egin dezakeena eskatu:

-Kalte materiala izan bada, dagokien **ordainketa** eskatu.

-Ikastolaren mesederako beste **lanak** (garbiketa...).

- Pertsona bat mindu bada azalpena eta barkamen eskaera (idatziz zein ahoz).

-Gelako orduetatik kanpo bidalitako lana betetzen gelditzea (atsedenaldiak...). Jarreraren larritasiunaren arabera, **gelatik kanpo gelditzea** ordu batzuetan, zaintza gelan bidalitako lana eginez.

-Konpromisoak erabili **kontratuen bidez**, portaera eta jarrera zehatzak eskatu, betebeharrekoak eta zenbatero ebaluatuko den.

-Jokabide bat zuzentzen denean edota aurrerapausuak ematen direnean onartu eta **baloratu** ikasleari.



***Hezkuntza-neurri zuzentzaileak ezartzerakoan kontuan hartzeko.
Erabiltzen den neurri zuzentzailea hezitzailea izan behar da.***

- Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa bultzatu.
- Egindakoarekin lotuta egon.
- Proporzionatua izan.
- Pertsonari hazten laguntzen diotenak izatea.
- Mindutakoarekiko enpatia bultzatzen dutenak izatea.
- Beraiek(ikasleek) proposatuak (Nola uste duzu konpondu daitekeela hori?)
- Inplikatuaren arteko komunikazioa ahalbideratzen dutenak.
- Mina jaso duena erreparatzen dutenak.

15. BIBLIOGRAFIA

- Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa [GEUZ](#).

[*Ikastetxeetan gatazkak elkarlanean ebazteko estrategiak.*](#)

[Eskola-elkarbizitza hobetzeko programak eta estrategiak.](#)

[Nola jarri abian, pausoz pauso, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritzako programa bat.](#)

- Hezkuntza Saila. [II. Hezkuntza plana berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023](#)
- VV AA (2016) Gestión positiva de conflictos y mediación en contextos educativos.
- 201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0806986a.pdf>